

Txuletari
hezurra
kentzea
lagungarria
da "behi eroen"
arazoa
konpontzeko? /7

Goienka

EGUBAKOITZA • 2001eko otsailaren 9a • II. urtea • 9. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka 2a

Amodiozko gutunen
Berrigara lehiaketak
baditu irabazleak

HERRIZ HERRI

Gerra denborako obus bat
aurkitu dute Elgetako
Pagatza poligonoan /4

MAITE ARISTEGI

"Baserriko produktu askok
duela hamar urteko
salneurria dute" /9

Telefonia konpainiak antenak teilatuetan jartzeko asmotan

Oñatin lapurretan egiteagatik gazte bat atxilotu dute

Sakelako telefonoak ikaragarri ugalduta azkenaldian. Gaur egun, telefono finakoak beste daude, eta sekulako aukerak eskaintzen dituzte, gainera. Segapotoen eta erabiltzaileen kopurua ugaltzeaz bat, telefono konpainien diru zakua ere handitu egin da.

Sakelako telefonoen uhinak zabaldu ahal izateko, hainbat antena jarri dituzte azken urteotan

Eskaintza tentagarriak jaso dituzte bizilagunek, etxeetako teilatuetan antenak jartzeko

mendi gainetan. Orain, oster, etxeetako teilatuetan ere jartzen hasi dira, eta telefono konpainiak eskaintza tentagarriak egiten ari dira etxeetako bizilagunei.

Uhin elektromagnetikoen gizakiengan kalteak eragin ditzaketeela uste dute ikerlari batzuek

Bestalde, uhin elektromagnetikoen gizakiarengan kalteak sor dezaketeela zabaldu da. Kalte horien inguruan ez dago gausa garbirik, baina buruko mina,

azkura, urduritasuna, lorik eza e.a. eragin die antenotatik hurbil bizi diren hainbat laguni. Oro har, kontu horretan ezjakintasuna da nagusi, eta lege aldetik hutsune handia dago, ez dagoelako gaiaren inguruko araudi zehatzik. Udal bakoitzak bere erara jokatzeko du, eta hori aprobetxatzen dute telefonia enpresek. /2-3

Ertzaintzak 23 urteko F.N. gazte aljeriarra atxilotu zuen Bilbon joan den barikuan. Izan ere, eguenean Oñatiko etxebizitza baten lapurreta izan zen, eta horren gainean Ertzaintzak egindako ikerketen ondorioz atxilotu zuten gaztea. Barne Sailak emandako informazioaren arabera, gaztea auto baten zihonan atxilotu zutenean, eta autoan bihurkina, artaziak eta etxebizitzetara sartzeko plastikozko txartel bat zeuzkan. Ikerketekin jarraitzen du Ertzaintzak. /3

Pedro Pujana ohorezko euskaltzain aramaioarra hil zen astelehenean Bilbon

Aramaioko Oleta auzoko semea zen Aita Pedro Pujana Agirregabiria ohorezko euskaltzaina domekan hil zen Bilboko Begoñako abadetxean, 85 urte zituela. Ekarpenean ugarri egin dizkio gizon horrek euskarari; tartean, euskal aditzaren inguruan egindako ikerketak. Angiozarko parrokoa izan zen bederatzi urtez eta Eskoriatzakoa beste pare bat

urtez. Gerra garaian, *Euzkadi* egunkarirako idatzi zuen Elgetako frontetik; horrez gain, *Zeruko Argia*, *Agur*, *Karmel* eta abarretan ere jardun zuen. Duela bi urte Aramaioko seme kutun izendatu zuten. Bilboko liburu azokan Urrezko Luma saria ere eman zioten, eta Itzultzaile Elkar-teak ohorezko kide izendatu zuen. /3



Istripu ikusgarria Kanpanzarren. Istripua izan zen astelehen arratsaldean Kanpanzar gainetik gertu. Arratsaldeko lauretan gertatu zen istripua, bi kamioiek elkar jo zutenean. Horren ondorioz, gidarietako bat harrapatuta geratu zen kamioi barruan, eta suhiltzaileak joan behar izan ziren kamioi gidaria ateratzeko. Gidariak, 59 urteko bilbotarrak, hanketan izan zituen zauri larriak, eta ambulanzian eraman zuten Arrasateko eskualde ospitalera. Kamioiak bidetik kentzeko, garabiak erabili behar izan zituzten. Ertzaintzak zirkulazioa Bergara aldetik bideratu behar izan zuen eta, ondorioz, auto ilara luzeak sortu ziren. /SAIOA OJANGUREN

EDIFICIO
LABEKOA

Ondo jateko beste modu bat

Santa Lucia auzoa, z/g
20709 EZKIO-ITXASO (Gipuzkoa)
☎ 943 72 25 52 ☎ 943 72 43 81
✉ baminar@teletel.es

*Telefonia konpainiek**teilatuetan ere jarri nahi dituzte*

Antenak

Eskaintza oso tentagarriak egiten dizkiete bizilagunei

ENEKO AZKARATE

Sinestezina da segapoto edo poltsikoko telefonoak zelan ugaltu diren azkenaldian. Gaur egun, telefono finkoak beste daude aldean eramaten direnak, eta sekulako aukerak eskaintzen dituzte, gainera, merkaturatu berri diren azken belaunaldiko poltsikoko telefonoak.

Poltsikoko telefonoen eta erabiltzaileen kopurua ugaltzeaz bat, telefono konpainien diru zakua ere handitu egin da. Gaur egun, ia guztiok darabilgu era horretako telefonotxoak.

Telefonia finkoan, mezua kable bidez zabaltzen da. Poltsikokoan, ostera, uhinen bitartez. Bestalde, orain dela gutxi arte Telefonicak zuen monopolioa, baina gaur egun, merkatu librean lehiatzen dira telefono konpainiak. Bi arrazoi horiek eraginda, poltsikoko telefonoen uhina zabaltzeko, geroago eta antena gehiago ikusten ditugu inguruan, mendi puntetan, batez ere.

Azken bi urteotan hainbat telefono enpresaren eskariak jaso dituzte udaletan, herritik gertu dauden mendi gainetan poltsikoko telefoniako antenak jartzeko. Bergaran eta Oñatin, esaterako, hainbat antena inguru jarri dituzte. Gainerako herrietan, bes-

te hainbeste. Ia guztiak Telefonica, Airtel eta Euskaltelenak dira.

ETXEKO TEILATUETAN

Orain, ostera, etxeen teilatuetan jartzeko eskariak egiten hasi dira telefono konpainiak. Bizilagunei egiten diete eskaintza zuzenean. "Abenduan Xfera konpainiaren eskaintza jaso genuen. Etxeko postontzian utzi ziguten paper bat, baina ez genion kasu handirik egin. Gabonen atarian, ostera, etxera deitu ziguten eskaintza gogorazteko. Interesik ez geneukala esan genion, baina harrezkero, deika eta deika dabilta, azkenaldian, Ericsson-en izenean". Bego Errastiren berbak dira. Bego eta Iñaki Arana Arrasateko Erguin auzoko Anboto 4an bizi dira. Atariko arduradun izatea egokitu zaie urtebeterako. Anboto kaleko bigarren atariko ere eskaintza bera egin die Xferakoek: milioi bat urtean, hamar urtean, eta obra guztiak enpresaren kontura, etxe-ko teilatuan poltsikoko telefoniako antena eta 6 metro koadroko kaseta jartzearren. Horren truke, edozein urtean teilatuta igotzeko baimena ematen diote etxeetako jabeek enpresari.

Duda barik, tentagarria da telefonia enpresek egiten duten eskaintza. Baina, antena horiek gizakiarendako kaltegarriak diren edo ez aztertze, ikerketak egi-



Bergarako Surraga gainetik gertu, Lamañño-Etxeberri baserriaren ondoan, poltsikoko telefonoentzako hiru antena daude.

ten ari dira han eta hemen. Uhin elektromagnetikoen minbizia eta bestelako gaitzak sor ditzaketen hipotesia indarra hartzen ari da azkenaldian. Zalantza horren aurrean, hainbat bizilagunek ezeztatu eman diote euren etxeetako tei-

laturan antenak jartzeko eskaerari. Hala ere, gerta liteke etxe bloke bateko bizilagunek antena ez jartzea erabakitzea, baina ondoko blokekoek euren jartzeko baimena ematea. Gaixotzeko arriskua izatekotan, ondokoendako ere

izango litzateke. Kaltea bera izango litzateke eta, alderantziz, erlukete dirurik jasoko. Horixe da Mondragoeko San Andres auzoko Arrasate Torreko bizilagunen kasua. "Orain dela urtebete-edo Euskaltel eta Amena enpresek

Bego Errasti

Erguin auzoko bizilaguna /ARRASATE

"Xfera konpainiaren eskaintza jaso dugu eta interesik ez dugula esan arren, azkenaldian, deika eta deika dabilta"

Xabier Zelaia

Udal aparejadorea /OÑATI

"Enpresak bizilagunekin bakarrik negoziatzea ez dugu ondo ikusten, baimenak ematerakoan udalak ere baduelako zer esanik"

Jon Artexe

Sagarrak talde ekologistakoa /BASAURI

"Hainbat herrialdetan ari dira eta antena hauek eskola edo ospitaletatik hurbil jartzea debekatzen dute"

bere erara jokatzeko du. Hori aprobetxatzen dute telefonía enpresek. Gure inguruan, zuntz optikoa lur azpitik sartzeko eskaerak egin dituzte telefonía enpresek. Euskaltelek, bereziki, interes handia du. Kasu honetan, Debagoieneko herri guztiak elkarrekin ari dira gaia aztertzen, eta guztiendako araudi bat egiteko, LKS enpresari eskatu diote ikerketa egitea. Baina, teilatuetan jartzen ari diren antenena beste kontu bat da.

Oñatiko Udaleko aparejadore Xabier Zelaiak *Goienkariari* esan dioenez, "enpresak bizilagunekin bakarrik negoziatzearena ez zaigu ondo iruditzen, baimenak ematerakoan udalak ere baduelako zeresanik. Herrian edo mendi gainera eta dauden antena guztiak toki bakarrean biltzearen aldekoak gara".

Euskal Herriko hainbat udalek telefonía konpainiek eginiko eskaera guztiei ezetz esateko erabakia hartu dute, besteak beste, Eibar eta Basauriko udalek. Antena osasunarendako kaltegarriak izan daitezkeen ikertzen ari dira udal hauek.

KALTEEN ERANTZULEA, ZEIN?

Bestalde, eraikinetako sabaietan jartzen dituzten antenen instalazio eta mantentze gastu guztiak enpresak hartzen ditu bere gain, baina antenen ustezko eragin kaltegarrien gainean aipamenik ere ez da egiten etxeko jabeen eta enpresen artean sinatu beharreko kontratuan. Euskal Kontsumitzaileen Elkartek dioenez, bizilagunek kontratua sinatzen dutenean ez dakite etorkizunean antenak kalterik sor dezakeen edo ez, ikertzaileek ez dutelako horren inguruko ezer garbirik esan. Baina, Espainiako auzitegiek emandako hainbat epaitan bestelakoa esaten da: hau da, arriskua sor dezakeen instalazio bat jartzea baimentzeagatik, dirua jasotzen duena dela antenak sortutako kalteen erantzulea.

Uhin elektromagnetikoen gizakiengan sortzen dituzten kalteen inguruan ez dakigu oraindik gauza garbirik. Munduko Osasun Erakundeak CEM proiektuaren barruan ikertzen dihardu kontu hori, baina 2005era arte ez da ikerketaren ondorioz edukiko. Hainbat talde ekologistek uste dute onena prebentzioa dela. Basauriko Sagarrak taldeko Jon Artetxe esan digunez, "buruko mina, azkura, urduritasuna, lorik eza e.a. eragin die antena horietatik hurbil bizi diren hainbat laguni. Bestalde, hainbat herrialdetan era honetako antenak eskoletatik edo osasun etxeetatik hurbil jartzea debekatzen dute".

Bergarako EHko bozeramaile Jesus Mari Garitanoren ustez, administrazioak zorrotzago jokatuko beharko luke kontu honetan. Araudirik ez dagoenez, udalek antenak jartzeko baimenak errazgi ematen dituztela, eta horrez gain, sarritan antenak lizentziarik eskatu barik jarri dituztela salatu du. "Kontu honekin aspalditik gabiltza. Orain arte, mendi gainak gurutzetaz beteta izan ditugu. Orain, ostera, antenez josi dituzte. Diru asko dago tartean, eta arinkeriaz jokatzeko ari da administrazioa".

Bailaran, labur

ERREPIDEAK

Elorregitik Epelerako errepidea berritzeko lanak adjudikatuta

San Prudentzioko bideturuzetik Epelera arteko errepidea berritzeko lanak Construcciones Galdiano S.A. enpresari esleitu dio Gipuzkoako Diputazioak. Errepidea zabaldu eta konpontzeko eta San Prudentzian beste zubi bat eraikitzeko lanak 409 milioi pezetan adjudikatu dira. Lanak udaberri aldera hastea aurreikusita da. /ENEKO AZKARATE

ISTRIPUA

Bi kamioiren arteko istripuak ilara luzeak sortarazi zituen

Istripua izan zen astelehen arratsaldean Kanpanzar gainetik gertu. Arratsaldeko lauretan gertatu zen istripua bi kamioi elkar jo zutenean. Ondorioz, gidarietako bat harrapatuta geratu zen kamioi barruan eta suhiltzaileak joan behar izan zuten bertaraino kamioi gidaria burdin artekin ateratzeko. Gidariak, 59 urteko bilbotarrak, hanketan izan zituen zauri larriak, eta anbulantzia eraman zuten Arrasateko eskualde ospitalera. Kamioiak bidetik kentzeko garabiak erabili behar izan zituzten. Ertzaintzak trafikoa Bergara aldetik bideratu behar izan zuen eta, ondorioz, auto ilada luzeak sortu ziren Epeletik San Prudentzioko bideturuzte artean. Bidea iluntz aldera arte egon zen itxita. /SAIOA OJANGUREN

LAPURRETAK

Ertzaintzak gazte bat atxilotu du Oñatin lapurretan egiteagatik

Lapurretekin kontuz ibiltzeko ohartarazi du berrero ere Herrizaingo Sailak. Izan ere, azken asteotan gora egin du Deba bailarako etxebizitzetan egindako lapurreta kopuruak. Lapurrak plastikozko txartelak erabiliz sartzen dira giltzarekin itxi barik dauden etxebizitzetara. Azkenaldian, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgoibar, Eibar eta Sorluzetik jaso dituzte salaketak. Edozelan ere, Ertzaintza lapurretak argitzeko lanean ari da, eta dagoeneko atxilotu du pertsona bat. Aljeriarra da atxilotua, 23 urteko F.N. gaztea. Bilbon atxilotu zuten pasa den barikuan. Izan ere, egunean Oñatiko etxebizitza baten lapurreta izan zen. Horren gainean Ertzaintzak egindako ikerketen ondorioz atxilotu zuten aljeriar gaztea. Barne Sailak emandako informazioaren arabera, gaztea auto baten zihonan atxilotu zutenean, eta autoan bihurtuta, artaziak eta etxebizitzetara sartzeko plastikozko txartel bat zeuzkan. Ertzaintzaren ustez, litekeena da gazte honek beste lapurreta batzuetan ere esku hartu izana. Bitartean, ikerketak egiten segituko du Ertzaintzak; hala eta guztiz ere, etxetik irtetea atea giltzarekin itxeko eta kontuz ibiltzeko gomendioa egin du. /UBANE MADERA

LANA

Lanuzteak egin dituzte aste honetan ere metalgintzakoek

Metalgintzako lan hitzarmena sinatzeko ELA, LLAB eta ESK sindikatuek mobilizazioak egin dituzte aste honetan ere. Eguen eta eguakitzean lan uzteak egin dituzte eta manifestazioak Bergaran eta Arrasaten. Bestalde, grebarekin bat egiteko eskaria egin diete sindikatuek bailarako kooperatibei. Eguen goizera arte ez dute lan uzterik egin. Hala ere, lantegietako Gizarte Kontseiluak bilerak egin dituzte gaia aztertzeko. /E.A.



HERIOTZA

Pedro Pujana ohorezko euskaltzain aramaioarra hil zen astelehenean Bilbon

Oleta auzoko semea zen Aita Pedro Pujana Agirregabiria ohorezko euskaltzaina domekan hil zen Bilboko Begoñako abadetxean, 85 urte zituela. Makina bat ekarpen egin dizkio gizon horrek euskarari; tartean, euskal aditzaren inguruan egindako ikerketak dira bere ekarri handienak.

Horrez gain, abade zela, lau urte eman zituen Jerez de la Fronteran, eta gero, Gasteizko elizbarrutira itzuli zen. Angiozarko parrokoa izan zen bederatzi urtez eta Eskoriatzako beste pare bat urtez.

ARAMAIOKO SEME KUTUNA


Pedro Pujana jesulagunak izugarri maite zuen euskara, eta maitasun horrek bultzatuta, lan ugari egin zituen. Aitarengandik jaso zuen euskararekiko maitasuna euskaltzainak. Nekane Arana ilobak gogoratzen duenez, "nik etxean adituta daukadanagatik, bere aitak zaletasun handia zuen irakurtzeko eta sutondoan makinatxo bat koplara, ipuin eta batez ere, Testamentua gipuzkeraz irakurtzen zizkion", eta horrelaxe ikasi zuen Pedro Pujanak euskaraz irakurtzen eta idazten.

Horrela, bada, gerra garaian Euzkadi egunkarirako idatzi zuen Elgetako frontetik; horrez gain, Zeruko Argia, Agur, Zer, Karmel eta Kardaberaz izeneko aldizkarietan ere lan egin izan du. Salamancara ere joan zen linguistika ikastera, eta han zegoela, Bizkaiko Forua edo Foru Berria itzuli zuen. Eta horrexegatik eman zituen "Urrezko Luma" Bilboko Liburu Azokan (argazkian); eta Itzultzaile Elkartek ohorezko kide izendatu zuen.

Era berean, Euskal aditza bizkaieraz eta Oletako aditza izeneko liburuak ere idatzi zituen, besteak beste. Nor-nori-nork aditza erakusteko modurik aitzindarietakoa, adibidez, Pedro Pujanak asmatutakoa da. 1976a ezkerro zen euskaltzain urgazle Pedro Pujana, eta 1995ean izendatu zuten ohorezko euskaltzain. Bestalde, duela bi urte Aramaioko seme kutun izendatu zuten.

Gaixorik eman zituen bizitzako azken urteak eta Begoñan hil zen, hango abadetxean bizi izan da eta erretiratu zenetik hona. Nekane Arana ilobak esan digunez, "etxeokoin agurtu zenean, esan zigun, inork beragatik galdetuz gero, fededun handia zela eta oso euskaldunzalea zela esateko. Horiek ziren-eta bere bizitzako gauzarik garrantzitsuenak".

Hortaz, oroitzapen horiekin agurtuko dugu guk geuk ere Aita Pedro Pujana. Agur eta ohore. /UBANE MADERA



ENEKO AZKARATE

gure teilatuan antena jartzeko eskaintza egin ziguten. Ezetz esan genien, eta etxe ondoko ur biltze-gian, Kurtzetxikin, jarri ziguten antena", esan dio *Goienkariari* San Andresko auzo alkate Isabel Buenok. Halakorik gerta dakie keelako kezkatuta daude Bego Errasti eta Iñaki Arana. Horregatik, inork kalterik ez jasotzeko, Erguin auzoan gaiaren inguruko informazioa zabaldu gura dute.

Arrasaten, Santa Marina 24an ere jarri dute poltsikoko telefoniko antena bat. Bergaran Bidekurutzeta kalean dago bakarra; Oñatin ez dute bat bera ere jarri.

ARAUDIRIK EZ

Oro har, kontu horretan ezjakintasuna da nagusi. Bestetik, lege aldetik hutsune handia dago, ez dagoelako gaiaren inguruko araudi zehatzik, eta udal bakoitzak

BERGARA

PRESOEI OMENALDIA

Jose Mari Etxaniz eta Mikel Askasibar presoen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte otsailerako

Etxanizek hogeita bat eta Askasibarrek hamar urte egingo dituzte espetxean hilabete honetan

MONIKA BELASTEGI

Jose Mari Etxaniz eta Mikel Askasibar Bergarako preso- en aldeko hainbat ekitaldi egongo dira otsailean. Izan ere, biak otsailean atxilotu zituzten: Etxaniz duela 21 urte eta Askasibar orain dela hamar. Ekitaldiak Bergarara plataformak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatu dituzte.

Mikel Askasibar "Aska" kartzelan dela 10 urte bete dira otsailean. 1991. urtean Zarautzen atxilotu zuten, larriki zaurituta, bi tiro zituela. Hogeita hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Hamar urteotan Alcalá Meco, Valdemoro eta Herrera de la Mancha espetxeetan egon da. Gaur egun ere hantxe dago.

Hori guztia dela eta, Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta bere lagunek hainbat ekitaldi antolatu dituzte haren ome-

nez astebururako. Gaur, egubakoitza, 19:30ean manifestazioa aterako da San Martín plazatik; gero, 20:00ak aldera, omenaldia egingo diote San Martín plaza. 22:00etan pilota partidua egingo da: Joseba Askasibar "Pirata" Txikito de Mondragonen aurka arituko da. Zapatuan, omenaldiarekin jarraituz, gaztetxean, kontzertua: Pepi eta Gabi eta talde sorpresa, 23:00etan.

HIRU LAURDENAK BETETA

Jose Mari Etxaniz dagokionez, otsailaren 19an 21 urte beteko dira espetxean dela. Aratuste Martitzenez atxilotu zuten eta 34 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, nahiz eta odol deliturik ez agertu. 1995a ezkerro aske egon beharra zeukan. Izan ere, urte hartan bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Hala eta guztiz ere, ez zioten bigarren gradua ezarri. Oraindik ere egoera berean dago, hau da, lehen graduan. Horretaz gain, irteera egunik ere ez diote ezarri.



Etxanizen aldeko Bergara plataformak antolatu ditu haren omenezko ekitaldiak.

Soria, Herrera de la Mancha, Alcalá Meco, Puerto de Santamaria eta beste hainbat kartzelatan egon da. 1999. urtetik hona Salamankako Topasen dago.

Hori guztia kontuan izanik, Etxanizen alde sortutako Berga-

rara plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu haren omenez. Bestalde, Amnistiaren Aldeko Batzordeek prentsaurrekoa egingo dute datorren martitzenean, hilak 13, Donostian. Bertan, Etxanizen eta bera bezala espetxean

hogeita urte daramatzaten preso- en egoeraren berri emango dute.

EKITALDI UGARI

Otsailaren 16an hasi eta martxoaren 4ra arte iraungo du Etxanizen omenezko ekitaldiak. Hilaren 16an, 19:30ean enkara bada egongo da San Martín plaza. Otsailaren 17an, zapatuan, 12:30ean manifestazioa deitu du taldeko kideek. Honako taldeak izango dira: Etxaniz, Askasibar, Bengantzahutsa, ELA, LAB eta EHNE. Hurrengo egunerako, domekarako, ekitaldi politikoa antolatu dute Bergarako AABek. 19:00etan izango da Udala Pilotalekuan. Otsailaren 24an bizikleta karabana irango da San Martín plaza. Martxoaren 10:00etan. Azkenik, martxoaren 4an autobusa antolatu dute Tolosa joateko. Goizaldeko 4retan irteera izango da Fraiskozuri plaza. Izena ohiko tokietan eman daiteke.

ELGETA

LEHERGAILU BAT AURKITU DUTE

Gerra denborako obus bat aurkitu dute Pagatza poligonoan

Obusak 30 kilo pisatzen du eta 60 zentimetro luze da

IBAN ARANTZABAL

Nahiko handia zen joan den bariakuan Elgetan aurkitutako obusa. Langileek aurkitu zuten, eta horrelako kasuetan egin izan den moduan, Ertzaintzari deitu zioten.

60 zentimetroko pieza oso modu onean zegoen langileek aurkitu zutenean. Hala izanik, Ertzaintzak, Pagatza bertan eztaba egin beharrezan, eraman egin zuen artezilarien unitatera. 30 kilo zituen bonbak eta Ertzaintzak adierazi digunez, Elgetan aurkitutakoa egoera onean zegoen ere, ez da komeni izaten lekuz aldatzea.

Astero-astero agertzen ei da bonba, granada edo jaurtigairen bat, eta Gipuzkoan eta Bizkaian agertzen dira gehienak. Elgeta, Durango eta Gernika inguruan gerra denboran izandako bonbardaketek horretan badute eraginik. Batzuetan, eztaba egin beharrezan, eraman egin zuen artezilarien unitatera. 30 kilo zituen bonbak eta Ertzaintzak adierazi digunez, Elgetan aurkitutakoa egoera onean zegoen ere, ez da komeni izaten lekuz aldatzea.



203 milimetrotako diametroa du Pagatza aurkitu duten obusak.

duen jendea ere, arriskuaz jabetu barik.

ERTZAINZAREN GOMENDIOA

60 urte inguru izango dituzten arren, oraindik kargatuak egoten dira asko eta asko. Elgetan aurkitutakoak, esaterako, karga apurtzailea zuen, eta horrelako kasuetan ez da, ez ukitu ezta mugitu ere egin behar. Artezila-

riei abisatzeko modurik errazena 112 telefonora deitzea da. SOS deiak-etik esango digute egin beharreko guztia eta handik abisatu diote Ertzaintzaren artezilariei unitateari.

Ertzaintzak egin dituen neutralizazio guztietan ez da istripurik egon; dena dela, oso arriskutsuak ei dira leherkariok eta oso kontuz erabiltzekoak.

OÑATI

GAZTELEKUA

Bi aste barru aurkeztuko dute udalean Gaztelekua eraberritzeko proiektua

Bigarren solairua egitea aurrez ikusten da

AINTZANE IRIZAR

Gaztelekua eraberritzeko ideia lehiaketa 1999. urte amaieran deitu zuen Oñatiko Udalak. Aurkeztu zirenen artean, Lierni Altube eta Ana Diaz de Monasterioren oñatiar arkitektoei esleitu zitzaie proiektua. Amaitzear dute dagoeneko proiektu hori, eta pare bat aste barru aurkeztuko dute udalean, martxoaren 10ko bilkuran onar dadin. Iazko eta aurtengo aurrekontuetan onartutakoaren arabera, guztira, 55 milioi bideratuko dituzte gaztelekuko proiekturako.

Gaztelekua bigarren solairua egitea aurrez ikusten da proiektu horretan. Sotanoa, berriz, ez dute ukituko. Gaur egun sotora jaisteko eskailerek uzten duten hutsunean, agertoki bat egingo dute. Solairu horretan bertan, argazki laborategia, informatika gela, dinamiza-

tzailearen bulegoa eta taberna egingo dituzte. Taberna, kontzertuak edo bestelako ekitaldiak egiteko daudenean bakarrik zabalduko dute. Bigarren solairuak, berriz, zati bat bakarrik hartuko du, eta agertokiari begira egingo du. Balkoi itxurako bat izango du. Hantxe gazte teknikariaren bulegoa eta tailerrak egingo dituzte besteak beste. Hasiere batean aurrez ikusten zen grabazio gela berriz, ez egitea erabaki dute udaleko arduradunek. Hala ere, maketak grabatu nahi dituzten taldeei 80.000 pezetako laguntza emango diete. Eskolako taldekako lanak egiteko gela bat ere egingo da, liburu eta entziklopediekin hornituta.

Bestalde, 55 milioi metro koadroko eremurako kubo bat egingo da gaur egun informazio matika gela dagoen ondoan. Gela horretan funtzio ugari izango du; hala nola, kontzertu txikiak, hitzaldiak, erakusketak...

Zertzelada

Iazko eta aurtengo aurrekontuetan onartutakoaren arabera, 55 milioi pezeta bideratuko dira gaztelekuko proiekturako, udalbatzarrak aztertuko du proiektua martxoan

ARETXABALETA

LANTEK ENPRESA ARABARA

Lantek enpresak Miñaon izango du egoitza

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako Lantek informatika enpresak Arabako Miñaoko parke teknologikoan zabaldu du eraikin berri bat. Software arloan lan egiten duen enpresa honek mila metro kua-dro eta hiru pisu dituen eraiki-nean egingo du aurrerantzean bere lana. Izan ere, oraindik zapi langile Aretxabaletako eraiki-nean geldituko diren arren, langile gehienak, 40 lagun, Miñaora joango dira. Aretxabaletako egoitzak Espainia eta Portugalgo ordezkaritzak mantenduko ditu. Eraikin berriaren, ostera, komunikazioan punta-puntako teknologiaz egingo dute lan. Lantek enpresak 600 milioiko fakturazioa izan zuen pasaden urtean, eta gaur

egun, zortzi herrialdeetan ditu egoitzak. Gainera, txapa sektoreko softwarean lider diren enpresetatik hirugarrena da berau.

ELKARRIREN BAKE KONFERENTZIA

Elkarririk bake konferentziaren aldeko kanpaina jarri du abian. Horretarako aurkezpen ofiziala Bilbon egindako datorren domekan. Lehenengo hitzaldia, baina, Euskal Herrian, Aretxabaletan ematea erabaki dute. Horren arrazoia da Elkarririk herri horretan dituen jarraitzaile kopuru izugarria. Hitzaldiaren helburua kanpaina berria azaldu eta elkarretarako bazkide gehiago lortzea izango da. Hitzaldia datorren martitzenean emango da arratsaldeko 19:30ean Murruxoko egoitzan.

Zertzelada

Aretxabaletako egoitzak, orainarteko ordezkaritzak mantenduko ditu, eraikin berriaren, komunikazio alorrean punta-puntako teknologiaz egingo dute lan.

ESKORIATZA

SANTA AGEDA MUTILAK

Santa Agedak aurten ere kintoak kalera atera ditu

Kantuak eta dantzak nagusi izan diren arren, zeresana sortu dute euren portaera dela eta

INIGO BIAIN

Aurten ere, kintoek egun bat baino gehiagoz zuri-gorritz margotu dituzte Eskoriatzako kaleak, baina aurtengoa, gainera, aspaldian izan den kinto urterik luzeena izan da, joan den egubakoitzean hasi eta astelehena arte egon ziren-eta kantuan eta dantza eginez, diru eskean. Lau egunotan Eskoriatzako auzo eta kaleetan ibili dira, eta baita, ohiturari jarraituz, zaharren egoitza bisitatu ere. Eta oraindik ez da amai-

tu, Domekan emango dute-eta azken saioa.

Dena dela, eta badirudi hau ere ohiturak agintzen duela, ez da guztia dantza eta kantua izan, kinto bat baino gehiagok suzirik behar ez zuena egin zuen-eta. Garai baten, soldadutzara joateko egiten zen diru biltzea, egun, parrandarako aitzakia bikaina bilakatu da, eta antza denez, Eskoriatzaren egoitza handia zena (Santa Ageda eguna, konkretuki) urtetik urtera zaleak galtzen ari da.



Kintoek zaharren egoitza bisitatzeko astia ere hartu dute.

INIGO BIAIN

ARRASATE

KOOPERATIBAK

Fagor Elektronikak 14.000 milioi pezetako salmentak gura ditu

Datozen lau urteotan salmentak %60 igo nahi ditu kooperatibak

UBANE MADERA

Datozen lau urteotan 14.000 milioi pezetako salmentak lortu nahi ditu Fagor Elektronika lantegiak. Hori horrela izanez gero, Fagorren salmentak %60 igoko dira; izan ere, iaz 8.773 milioi pezetako salmentak izan zituen. Horrekin batera, langile kopurua handitzea ere gura du Fagorrek. Orain 561 langile badira, lau urte barru 700 izango dira, asmoak betez gero.

INBERTSIOAK

Eguaztenean emandako datuak dira hauek. 2001-2004 urte arterako egindako plan estrategikoaren barruan sartuta daude. Kooperatibako ordezkariek gaineratuta-

koaren arabera, inbertsio kopurua ere handitzeko asmoa dago, 4.600 milioi pezetaraino. Inbertsio horiek erabiliko dira Arrasateko lantegian produkzioa handitzeko eta sistema eta ekipamendu berriak eskuratzeko. Bereziki, txip berriak eta produktu berriak egiteko ekipamenduak erosiko dira, eta miniaturizatutako osagaiak egiteko muntaia berriak antolatzeke ere erabiliko da.

Modu horretan, Fagorrek produkzio propioaren beharrak bete ahal izango ditu.

Bestalde, nazioartean Fagor Elektronikak dituen enpresei dagokienez, Tailandiako lantegia indartzeko ahaleginak egingo dituzte, bereziki.

APPALDE AURKEZTU DA

Arautze espediente bidez aurretik erretiratuendako eta alarguendako, informazio hitzaldia eman zuen atzo APPALDE elkar-teak, aurretik erretiratu direnen eta pentsiodunen Debagoieneko elkarteak.

Talde horren helburua da Erregimen Orokorretik erregulazio espediente bidez aurretik erretiratu direnen pentsioak kalkulatzeko portzentajeak aldatzea. Horrekin, 65 urte baino lehen erretiratuena, adin horretara iristean oinarri arautzaileko %100eko pentsioa jasotzea nahi da.

Alargunen pentsioei dagokienez, ostera, %75era iristea gura da.

ARAMAIO

Enpresa berriarendako logotipo bila

UBANE MADERA

Aramaion udalak banatu izan du argindarra beti, nahiz eta toki gehienetan Iberdrola arduratzen den eginkizun horretaz. 1997. urtean onetsitako lege baten arabera, baina, argindarra banatzen duten eta enpresa ez diren banatzaile guztiak enpresa bihurtu behar ziren.


Hortaz, Aramaioko Udalak argindarra banatzeko enpresa sortu zuen joan den abenduan: Aramaioko Argindar Banatzailea SA; Elkarte anonimoa den arren, kapital osoa publikoa du.

ARGINDAR ENPRESAREN IZAERA

Orain, Aramaioko Udalak logotipoa behar du enpresa horrendako, eta horretarako, logotipo lehiaketa antolatzea erabaki du. Dagoeneko, bidali dituzte lehiaketaren oinarriak Aramaioko Ikastolara bai eta Arrasateko San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastolara eta institutura ere. Edozelan ere, nahi duen edozeinek esku har dezake lehiaketan. Lanak Aramaioko Udalera bidali behar dira.

Hori bai, lehiaketara aurkezten diren diseinuak enpresaren argindar banatzaile izaerarekin lotura izatea baloratuko dute. Formatua librea izango da, baina pertsona bakoitzak logotipo bakarra aurkeztu ahal izango du, goitizena erabiliz.

Lanak otsailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago behar izanez gero, Aramaioko Udalera jo behar da (945 44 50 16).



Bošt arazoirengatik erosi behar duzu Euskalteko saltoki globaletan:

- Saltzeko orduan arintasuna
- Telefono kostuetan aurreztea*
- Enpresa-merkatuko alderdi garrantzitsuenen informazioa
- Bezeroekin harreman hobea
- Sakelako telefonoen konponketa bideratzeko zerbitzua

ENPRESA ZERBITZUA:

- Telefono digitalen telefonogunea
- Telefonía mobila
- Internet
- Telefono finkoak 1050
- Hari digital bariko telefonoak (DECT)


ZERBITZU PARTIKULARRAK:

- Aurreordaindutako Euskaltel pack-ak
- Internet
- Telefono finkoak 1050

ARRASATE
Maalako errebala, 8-behea
Atzekoa (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81
Faxa: 943 71 17 85


EIBAR
Errebal, 15
Tel.: 943 70 03 69
Faxa: 943 20 63 79

SALTOKI GLOBALA:



*2000ko urriko batzordeko kontsumo gordinaren arabera, EAOko tarifetako %11raino aurrezpena.

Zabalik



JUAN MARTIN
ELEXPURU

Hika nahixago

Hortik zihar ibilita gero, etxeko gozotasunera bueltatzia gauza ederra izaten da: ortuko tomatia, amaren porruptatak, etxeko ohia... Baiña, neuri behintzat, pozik haundixena nere berezko berbetan egin ahal izatiak emoten dost. Egon zara luzaruan erderaz edo euskera batuan egitten; itxura samarrian, baiña beti zeure barruan berbak eta esateko moduak kostata topatzen, zuzen ala oker ete zabitzen kezkiakin.

Halako baten ailegatzaren zara etxera, eta hasieran sortuta sentitzen dozu mingaiña zure betiko berbetan. Baiña barriketant egin ahala, segittuan lijertzen jatzu, olixua botatako kataia letxe, eta handik aurrera jardunak berez-berez urtengo dotsu, itturriko ura baino parrastada hobiakin.

Lagun artera bazoiaz eta hika egitten badozue, oinddio beste gozamen bat gehittuko jako zure etorrerari. Hillabetiak esan ezinda pasauta gero, "joan giñuztan", "galdu jakunan", "etxakixat", "ikusiko jonau" trankil botatziak emoten daben plazerarra probau dabenak bakarrik daki.


Asko kejatzen gara euskeraz argotik ez daukagulako, gaztiak eta ez hain gaztiak berbeta berua nahi dabenian erderara joten dabelako, baiña gero hiketa moduko harribitxi bat daukagu eta ez dogu bape apreziatzen eta zaintzen. Nun erakusten da hika eskoletan? Millaka ordu batuko aditzarendako, eta hiketarako ordu erdi be ez.

Jakina, nekez egingo dogu hika zuka be ez badakigu, eta honek betikora eruaten gaittu: noiz hasi behar dogu geure herri-euskera apreziatzen?

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubi-dea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Euskara eta herria

Abesti asko da euskal kantagintzan euskarara, gure hizkuntzaren, eta Euskal Herria, gure herriaren, arteko harreman bereiztezinaz mintzo dena; gogoratu besterik ez Mikel Laboaren Herria eta hizkuntza edo Oskorri taldearen Euskal Herrian euskaraz. Euskaltzale askok abestuko genituen, eta bihotza apurren bat beratu ere, hitz horiek kantatzen. Bada, ordea, abesti horiek islatzen duten egiaz gain, beste egia mingarri eta mingotsagorik ere; azken mendeetan, eta horri jarraipena emanez, azken hilabeteotan ere, euskara, eta Euskal Herria oro har, jasaten ari den eraso, hain zuzen. Azken finean, bere sorrerari bereiztezinak diren bi kontzeptu (euskara eta herria) ezin baitira elkarrekin inongo loturarik ez duten bezala aurkeztu, honela, espainol patrioterok zein frantses jakobinoek aspalditik abian jarri duten zapalkuntza estrategiaren aurrean euskara bakean utziko duten itxaropenaz.

Azken mende luzeotan, eta, baita azken hilabete labur bezain bizietan ere, inoiz baino argiago ikusten ari baikara zein diren Euskal Herria zapaltzen duten bi estatuen helburuak; lehena, eta funtsezkoena, Euskal Herria bera desagertaraztea, eta bigarrena, euren mundu ikuskera hertsu eta baztertzaila inposatzea. Esku artean dabilkiten bi helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa zaie herri bereiztu gisa definitzen gaituzten nortasun ezaugarriak desagertaraztea, eta hor kokatzen dugu euskara jasaten ari den eraso etengabea; baina

ez euskara bakarrik, baita euskal irakaskuntza nahiz euskal kultura, nahiz, esan bezala, herri ezberdinu gisa definitzen gaituen ezaugarri orok jasaten duten bazterketa eta zapalkuntza.

Garbi dago, beraz, ezin bereiz ditzakegula gure herriaren zapalkuntza egoera eta euskararen bazterketa egoera (bereiztezin baitira). Euskararen aurkako eraso hauen atzean proiektu politiko eta ideologia zehatz bat dago, hots, espainiar nazionalismo eta frantziar jakobinismoa, hain zuzen ere (deitu PP edo PSOE, eta deitu RPF, UDF edo PSF). Bada ordua, beraz, gure herriaren zutabe estrategiko den euskara astintzen duen erasoari aurre egiteaz gain, gure hizkuntzaren eta herriaren biziraupena bermatuko duen marko politiko berri baterantz jauziak ematen hasteko. Jauzi horiek Euskal Herri euskaldun batean behar dute jomuga, eta sei herrialdeetarako euskararen ofizialtasunaren aitortzan tarteko helmuga. Garbi dago, beraz, egungo erasoei, zein marko politiko zaharkitu (Euskal Herriaren zatiketa eta ukazioa ekarri duena) hau gaunditzeko apostu nazional bat abian jartzeko euskaltzaleok dugun beharra; euskararen plangintza estrategikoak herriz herri, Euskal Herriaren luze zabalean, abian jarritz; Udalbiltza bultzatuz (PNVk eta EAK espainolekiko duten murrontza ezkatatu ezinik erakusten ari diren jarrera gaundituz); erasoei aurre eginez; euskararen ofizialtasunaren aldeko ekimenak bultzatuz, eta, oro har, borrokatuz eta lan eginez.

EUSKAL HERRITARROK
Bergara

Errespeto falta edo ez jakintasuna

Goienkariak ez omen du bere gain hartzen argitaratzen diren iritzi eta esanen erantzunkizunik, baina ez zait garbi geratzen zeini botatzen diozuen erantzunkizuna inoiz idazten dugunok bidalitakoa guztiz desitxuratuz argitaratzen duzuenen. Otsailaren bian, nik esanda moduan agertzen ziren erantzunak mozteaz gain (hori beste kontu bat da) zuzenbidez pixkat dakien batek sekulan esango ez lituzkeenak jartzen dituzue nire "ahoa". Hemen doa, osorik argitara ezazuen nik e-mailez bidalitakoa lehen garrari erantzunez.

Adin txikikoen lege berriaren aldaketa nagusiak, zeintzuk dira?

Aldaketak ugari izan dira, baina nire ustez ondoan doazenok jo daitezke nagusitzat: a)orain arte, hamasei urtetatik aurrerako gazteek inolako deliturik burutzen bazuten, Epaitegi normalen aurrera ziren eramanak, hemendik aurrera berriz, hamazortzi urte arte, Adin Txikikoen Epaileak juzgatuko ditu (Probintzia bakoitzean epaitegi bat, gutxienez); b)gazte horientzako, hain da, hamalau eta hamazortzi urte bitartean, terroristatzat ematen diren delituak direla eta epaitzeko, Auzitegi Nazioalaren eskumena eta Adintxikoen Epaitegi Zentrala eratzeko ere aldaketa nabarmena izan da; c)zigor sistema berezi bat, Zigor Kodetik aldenduz, Kode honen erreferentzia batzuk mantentzen dituen arren; c)erantzunkizun zibilaren aurrean eman den aldaketa ere oso gogorra da.....eta zehaztuz joanez gero, gehiago aurkitzen dira, noski: prozedura, delitugile eta biktimaren arteko adiskiditze aukerak, epaia betetzeko erakundeen eskumena..... Jendeak ulertu ahal izateko, erantzunkizun zibilaren asuntua, era arruntan azaldu nahiean, hauxe litzateke: Edozein personari, delitu bat burutzerakoan kalte ren bat eragiten bazaio, kalteordaina ordaintzeko obligazio ezartzen da, gehienetan diruz ordaindu beharko duena delitugile horrek. Lege honen arabera, kalteordain hori pagatzeko obligazioa gazteak zein bere gurasoek (edo zaintzaileak, kasuan kasuko) ordaindu beharko dute.....ez lehen ezin zelako hola izan, oraingo sistema zuzena, objetiboa eta gurasoen kaltean oso osorik eratua dagoelako. Asko idatzi da sistema edo modu berri honetaz, hain da harri-garria eta arazo sortzaile eratuta dagoen modua eta....baina honetan sakontzea, garrantzitsua den arren, astuna litzateke irakurlearentzat.


Irakurtzen dakienak eta gizarte gaitan zerbait badaki, ezberdintasunak ikusiko ditu, agian aldatu zuenak ez du inolako alderik antzemango, are gehiago kontuan hartuta ez dela lehen aldia antzekorik gertatzen zaidana pertsona berakin, eta zuzenduko zuen promesak ez zituela bete une hartan. Horregatik, alperrik izanik eskatutakoak, eskutitz hau bidaltzera behartuta ikusten dut nire burua, ea doan moduan argitaratzen duzuen.

NEKANE SAN MIGEL
Arrasate

Gutun gehiago 8. orrialdean

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Europar Batasuneko Nekazaritza ministroek behi txuleta debekatzea erabaki zuten joan den astean. Erabaki horren arabera, bizkarrezurra kenduta saldu beharko da okela. Horren ondorioz,

ezin izango dugu 12 hiletik gorako behien txuletarik jan; bai, ordea, entrekota. Eusko Jaurlaritzak "erokeriatzat" jo du erabakia, baina bete egingo duela adierazi du. Oro har, erabaki horren aurka azaldu dira

administrazioa, abeltzainak eta hainbat albaiari, harakin eta ostalari-tza alorretakoak ere. Europako ministroek hartutako erabakia berretsi egin beharko du Europako Batzordeak indarrean jartzeko.

Txuletari hezurra kentzea lagungarria da arazoa konpontzeko?

Politikoak bazterrak nahasten ari dira



BALENTIN GABILONDO
EHNEko kidea

Badira bost urte 'behi eroen' gaitza gizartean ezagutzen hasi zela, aurrenetik guztiok sinistu genuen urruneko zerbait zela. Gero, segituan konturatzen zara honen atzetik Europan bultzatu den nekazaritza politika industrializatu, intentsifikatu eta basatia dagoela. Eta gero, politikoak bazterrak nahasten, zientifikoak ideia garbirik gabe, gizartea nahastuta eta nekazariak irtenbide gabeko tunelean.

Bazterrak nahasten esaten dudanean, gainera, Euskal Herriko politikariak eta Madrilloak Bruselari errua bota nahian Frantzia edo Erresuma Batuko arazoa balitz bezala.

Tamalgarría benetan gertueneko politikoen portaera azkeneko bost urte horietan. Nekazarion ustetan, okela-politika egokirik ez da bultzatu Euskal Herrian. Hiltegiak ere ez dira prestatu gaurko beharretara.

Gizartea behar den bezala informatu gabe eta, zoritxarrez, seguruen hemendik hiru edo lau hilabetera egoera okerragoan eta non eta noiz eta nola gai hau amaituko den jakin gabe aurkituko gara. Amaitzeko, irakurle guztiei ohartxo bat: Euskal Herrian oraindik okela ona ekoizten dugu, nahiz eta azkenean txuleta hezurrik gabe jan behar izan.

Egunkarietatik jasoa

Hilkorragoak kolunpioak

(...) Behi eta aratxe okelak gure osasunarendako ukan dezakeen arriskua hutsaren hurrengo dela ziurtatzeko, haragiaren produkzioarekin zerikusi zuzena duten profesionalekin hitz egitea bertzerik ez dago: abeltzainak, albaiariak, harakinak, hiltegiatoko langileak...

(...) Haragia bera produzitzen, sendatzen eta kontrolatzen ari direnak dira jaten dutenaren kalitateaz gehien

dakitenak. Eta inolako arazorik gabe jaten dute, ziur baitaude. Komunikabideetatik edaten duen kontsumitzailea, informazio gutxien daukana, da uzkurrena. Inork erran lezake bere ogibidea defendatzeagatik hartzen dutela profesionalak jarrera hori. Gogoan izan, erraterako, scrapie gaitza zutelakoan Naporin hil zituzten 2.000 ardi haiek. Komunikabideen erreakzioa berehalakoa izan zen. Baina nork jakin zuen XVIII. mendetik diagnostikatzen den gaitza dela?

Behi eroen gaitzak gizakion osasunarendako duen arriskua, hilkortasun eragileen artean kontsideraziorik ere ez du merezi. Behi okela jateagatik baino askoz ere ume gehiago hiltzen dira Europan kolunpiotan jolasterakoan. Kolunpioek araudi batzuk betetzen duten bezala, okelak betetzen ditu. Inori bururatzen al zaio hurrei kolunpiotara joatea debekatzea?

GAIZKA ARANGUREN
Euskaldunon Egunkaria/2001-01-25

Ez dago arazorik txuleta jateko



JULIO ETXEBERRIA
Albaitaria

Gaur egun, eta 'behi eroen' gaitza-ren inguruan orain arte egin diren ikerketa zientifikoak kontuan izanda, Europar Batasuneko Nekazaritza ministroek hartutako erabakia zentzugabea da. Ez dago arazoi logikorik txuletari hezurra kentzera behartzeko.

Alde batetik, animalia batek 30 hilabete baino gutxiago baldin baditu eta gaitza eragiten duen prioiak kutsatuta badago, prioi hori ez dago inolaz ere bizkarrezur-muinean. Beraz, muin horrek

inoiz ezin izango du bizkarrezurra kutsatu.

Bestetik, 24 hilabetetik gorako abere guztiei bezala, behiei ere prioi ten testak egingen zaizkie hiltegiatan. Kontsumitzaileengana heltzen den abere okela guztiak test hauek eginak ditu eta, beraz, kontrol guztiak pasata. Ondorioz, ez litzateke arazorik egon behar hain gustuko dugun txuleta lasai asko jateko.

Hortaz, komunikabideetan sortu den zalaparta hau eta administrazioak hartu dituen neurri hauek guztiak arazioren kontrakoak iruditzen zaizkit. Hau guztia lehenbailehen pasatu eta normaltasunera heltzea gustatuko litzaidake. Gaitz hau baino askoz ere larriagoak diren beste batzuk (bruzelosia, tuberkulosia e.a.) pasatu genituen orain dela urte batzuk, eta ez zen halako zalapartarik sortu.

Gora eta Behera

ALBISTE TXARREN ALDERDI ONA



Francoren diktadura garaiko Meliton Manzanas torturatailearen omenez, Madrillogo gobernuak emandako domina, Nafarroan euskararen aurka egiten ari diren eraso, etorkinen egoera... Albiste batzuk argigarriak dira, bakoitza bere tokian uzten dutelako.

ARRASATEKO EUSKALTZALE ETA HEDABIDEEN ISILTASUNA



Arrasateko PSE-EE alderdiak herriko hedabideen aurka botatako koldarkerien aurrean, ez da erantzunik eman ez euskara taldeen eta ezta komunikabide edo hauek kudeatzen dituen enpresaren aldetik ere. Ez gara gehiegi akonplexatzen ari?



AITOR ITURRIAGA
Bergarako Udaleko langilea

Koplak

Euskal futbol taldeak

Futbolak eta euskal taldeek horrenbeste gorabehera, gero ta gaizkiago dabilta egin nahian hobera.

Reala, Athletic, Alaves ta nola ez Osasuna, emaitz hauekin galduko dugu zaletuok osasuna.

Azkenaldian nahiz eta ezin partidurik irabazi, aste batzutan emaitz hoberik ez ote dute merezi.

Gutako batek irabazi ta besteek galdu ezker, adarra jotzen diogu elkarri gogotsu astelehenero.

Nahiz ta adarra jo guk ugari elkarri astelehenetan, ziur barrutik triste gaudela pixkat lasaitu ostean.

Baina zaletuok ezin ahaztu beste taldeek bezala, Gureek ere poztasun batzuk ekarri dizkigutela.

JOKIN LABAIEN

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zelan ikusten duzu futbolak gaur egun gizartean duen eragina?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

SAILLETAKO ARDURADUNAK
Marijo Deogracias (Kultura,
Denborapasa, Telebista),
Edu Mendibil (Kirola,
Non Zer), Aintzane Irizar
(Berri-Zakua),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Uxue Zabaleta, Arantxazu
Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Maddi Trutxuelo,
Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Gutunak

Eskerrik asko

Kaixo, lagunok! Berriro zuengana knatorkizue Alcala Meco-ko euskal preso politikoon berri emateko. Dakizuenez, pasa den urriaren 22an patioko greba hasi genuen presondegi honetan, gutariko inor bakarrik inoiz ez egoteko eta bakarrik zeuden kideak beste kideekin elkartzeko.

Abenduaren bukaeran, 66 egun "txapatuta" egin ondoren, zuzendaritzak erabaki zuen bakarka zeuden kideak elkartzea. Momentuz, behintzat, borroka hasiera behartu gintuen arazoa konpondu egin dugu eta, beraz, patioko greba uztea erabaki genuen.

Guk argi daukagu konponketa borrokaren ondorio bat izan dela, bai hemen barruan eta baita han, gure herrietan egin dituzuen ekimenengatik (zuzendariari gutunak, presondegira deiak, mobilizazioak...).

Beraz, eskutitz honen helburua da zuei eskerrak ematea, zuen laguntzagaririk, zuen elkartasunagaririk eta baita zuen borrokarengatik ere, gure eskubideak defenditzen ahalegindu zaretelako. Jakin badakigu hau ez dela hemen bukatzen: gure erreibindikazioak eta gure lana etengabe aurrera eramatera beharturik gaudela eta gure helburu nagusia borrokaren bidez lortuko dugula.

Agurrarekin batera, animoak bidaltzen dizkizuet borrokan pausoak aurrera egiteko, guztion ahaleginarekin herri aske bat lortzeko. Beste bat arte, besar-kada bat Alcala Meco-tik.

JOSE MIGEL GAZTELU
Alcala Meco

Kanpo itxura

Ondiok be ikustekuk! 500 milloi! Zeinek esango leuke? Pentsatzen neban ikusi biharreko danak ikusitta nenguala nere herrixan, baiña orainguan be nere burua engaiñatzen ibilli naiz.

Ez dago dudarik Elgetan haundikeriak nagusi dirala, Bilbokuak izango bagina be... Dana haundixa eta hori bai, milloi astronomikuak dantzan. Orainguan zer eta "mendiko museua". Zertarako ete, eta itxuria danez, herrixan turismua bultzatzeko. Zein turismo klase? Inguru guztiak sasiz beteta eta zaindu barik dittugunian eta inguruok berreskuratzeko ez dagonian xentimo triste bat be: biharbada, mendizaliak hona herrira bisitatxo bat egittera datozenian konturatu daittezen basuak, mendixak, parkiak, zelan ez diran zaindu bihar, eta herri txiki baten gainbera

noraiño heldu leiken. Gaiñera, ez ete gara konturatu oindiok Elgeta herri industrialia dala? Poligono industrialia herrixa besteko haundixa da.

Ah! Ni bai tuntuna. Biharbada nekazal turismua egittera etorri biharrian mendi industrializatuen turismua egittia modan jarriko dogu Elgetarrok.

Bittartian herrittarrontzako xentimurik bez. Betiko lepotik burua: Ez dago dirurik! Baiña hori bai, ordaintzeko orduan Gipuzkoako tasa altuenetari kuak dittugu. Noiz hartuko ditzuzte herrittarren biharra kontuan? Estetikan eta itxuran oiñarrittu barik, noiz hasiko dira arazuak eta biharra bere sustraieetatik konpontzen?

REBEKA UBERA
Elgeta

Eskolak euskaldundu behar du! Euskara ofiziala, eskubidea dugulako

Datorren ikasturterako aurrematrikulazio epean gaudenez, Euskal Herrian Euskarazek gogoeta egin nahi du eskaintzen diren hezkuntza ereduaren inguruan.

Gure ustetan, euskarak eta Euskal Herriak egun bizi duen egoera jasanezina bilakatu zaigu. Euskaldunoi han eta hemen zor zaizkigun hizkuntza eskubideak urratzen zaizkigu.

Hizkuntza eskubideen urraketen ondorioak irakaskuntza alorrean ere nabariak dira. Hezkuntza sistema ezberdinak direla medio milaka eta milaka harren euskara ezagutza ukatzen da Euskal Herrian.

Nahiz eta gure herrian euskarazko irakaskuntzak indar gehien izan, belau-naldi berrien euskalduntzea ez dago batere bermatua. Hau horrela bada, ikasle hauen guztien etorkizuna baldintzatzen dihardute, Euskal Herriko berezko hizkuntza jakingo ez dutelako eta hezkuntzak kaltetu dituen pertsonak izango direlako.

Horregatik guztiagaririk urrats ausartagoak eman eta belau-naldi berriak euskaldunoko dituen eredu propioa ozen aldarrikatzen dugu. Egungo ereduak gainditu eta euskaldunoko duen eskolaren eredu, alegia.

Gure gizartearentzat etorkizun euskaldun bat nahi dugulako! Eskubidea dugulako!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

Euskal presoen eskubideen defentsan

Dakizuen bezala, azken hilabete haue-tan Euskal Herriak estatu arrotzen hatzaparrak bere egunerokotasunean pairatzen ari ditu. Honen adibide, PP-PSOE eta beren borroeroek sinatutako Euskal Herriaren aurkako paktua dugu.

Españolismoaren euforia momentu honetan edozer da zilegi abertzale-tasunaren aurka. Honen ondorio dugu eruskal preso politikoen egoeraren larritzea: isolamenduak, tratu txarrak, trasladoen ugaritzea, moduluen aldaketak eta inkomunikazioa... Gainera, oraindik, Euskal Herriaren etsaiek diseinatutako dispertsioak bere baitan dirau, senide eta lagunaren bizitza errepidetan arriskuan jarritz.

Honen harira, gogora arazi nahi diegu EAJ-PNV, EA eta ELA eta bere garaian euskal presoaren eskubideen defentsan zeuden talde eta herri mugimenduei, euskal presoaren eskubideak ez daudela koiuntura politiko eta erabaki partidisten menpe. Bada garaia norberak adozez jokatu eta presoaren eskubideen defentsan lanean hasteko.

Amaitzeko, Amnistiaren Aldeko Batzordetik aurrerantzean hileroko burutuko diren ekimenetan konpromezua hartzeko deia luzatzen dizuegu.

Euskal Herriaren hitza errespetatuaraziko dugu: euskal presoak Euskal Herrira! Mobilizatu!

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA
Arrasate

Aldaketak, baina txarrerako

Urtarrilarekin urte, mende eta milurte berria etorri dira. Aldaketak hobera izan behar direla pentsatzeko ohitura dugu gizakiok eta gure familiarron kasuan hala izatea gustatuko litzaiguke. Baina zoritxarrez gure familiarron egoera beti bezain krudela izaten jarraitzen du. Aldaketek, tropelean etorri badira ere, batzuetan ez dute ezer aldatzen.

Ihesan direnak urrunean, ezer gutxi dakigu haietaz. Presondegian daudenak, urrunean ere, ez dira libro eta dagozkien eskubideak, giza zein politikoak, behin eta berriz ukatzen dizkiete.

Hilabete honetan froga ugari izan

dugu: bi jipoituak, Valentzian eta Langraitzen, tratu txarrak Monterroson, Badajoz eta Dueñasen, isolamendua, bisiten galerak eta debekapenak, errekisak, zigor zeldak...

Hilabete honetan azpimarratu behar den aldaketa handi bat egon da: gure senide gehienak zeldaz eta moduluz aldatu dituzte. Aldaketak ezer ez aldatzeko, miseria berberan irauteko. Hilabete honetan gure familiar gehienak miatu dituzte, biluztu dituzte, bere pertsonen pertsonalak bortxatu, apurtu, desagertu... betiko miseria ezer alda ez dadin. Zergatik mantentzen dituzte zigor hauek?

Hilabete honetan estatu frantsesak eta mexikarrak entrega eta estradizio-arekin jarraitu dute. Gure 300 familiar pasatu badituzte ere, zer lortu dute? Aurtent, iaz bezala, orain dela hogeita urte bezala, noiz konturatuko dira herri honen duintasuna ez dutela makurtuko? Noiz errespetatuko dute herri honen borondatea? Nor da askatasunaren beldur?

Bitartean, Javier Rojo eta Pilar Aresti, PP eta PSOEko ordezkariak batera aritu dira Senideak eta gure familiarren aurka. Demokrazia eta giza eskubideak soilik haientzat direla berriro frogatuz. Haratago joan dira frankista berri hauek: Meliton Manzanas bergizarteratu nahi izan dute, domina baten bitartez.

Senideok oso ondo ulertu dugu zer egin nahi izan duten. Oso ondo ulertu dugu zergatik gure familiarrok ez diren gizarteratzen. Gure familiarrok ez baitute tortura onartzen, ez baitute frankismoaren semea den demokrazia usteldu hau onartzen. Gure senide preso eta iheslariak askatasuna maite dute, eta berdin zaie zer urte, zer mende, zer milurtean bizi diren, askatasunaren alde bizitza ere emateko prest baitaude. Herri honi zor zaizkion onarpenera eta errespetua besterik ez baitituzte eskatzen.

Senide bezala badakigu inoiz ez zaio-lagustatzen sufritzea, horregatik lehenbailehen sufrimendu guztiekin amaitu nahi dugu. Horregatik dakigu sakabanaketa, tortura, estradizioak, entregak ez direla gatazka konpontzeko bideak. Herri hau isilaraztea ez dela bake bidea. Nahiz eta garai gogorak izan, ezin duguna zera da, geldirik gelditu bazterrean. Apaiz irlandar batek esaten zuen bezala, garai txarretan ere zerbait egin dezakegu. Geldirik egotea sufrimendua mantentzea, injustizia onartzea izanik, Senideak elkarteak ibili nahi du. Eta guretzako, zalantzarik gabe, gure familiarrak, euskal presoak Euskal Herri-ratzea da justiziako norabide horretan lehen urratsa.

SENIDEAK
Bergara

Goienkaria

Goienkariak *argazkilaria* behar du

Interesatuok: **943 76 92 71**

Maite Aristegi (Bergara, 38 urte) baserritarra eta, ikasketa aldetik, abokatu dugu. Ezkonduta eta alabatxobatekin, Lamaiño-Etxeberri baserriari zeharo lotuta bizi da, nahiz eta baduen nahiko denbora kentzen dion beste behar bat ere: Euskal Herriko Nekazarien Elkarteko idazkari nagusia da.

INIGO BIAIN

Baserritarrek lehen ere arazoak ugarri, eta orain behi eroen kontu hau... Baduzue ganadurik etxean?

Bai. Txahalak gizentzen ditugu, okelatarako behi batzuk, eta esnetarako beste batzuk. Guztira, handi eta txiki, 40 inguru izango ditugu.

Kontu honekin administrazioek darabilten bidea egokia da?

Inprobisazio handia dago. Egia da arazoa nahiko berria dela, eta hortaz, zaila da erantzuna ematea. Baina, bagenekien aspalditik Erresuma Batuan bazela arazo hau, eta gaitza ez zela mugen kontua, abeltzaintza ereduarena baizik. Eta azkenean, azaleko erabaki batzuk hartu dituzte, baina arazoaren benetako sustraira jo barik. Gure ustez, erabaki hauek etorkizun urria dute. Esaterako, animalien hondakinekin egindako irinak sei hilabetez debekatzeak ze zentzu dauka?

Egin behar dena da, eta alde horretatik nahiko ondo gabiltza hemen, kontsumitzaileari segurtasuna ematea, kontrolak eta behar direnak eginez. Horrek abeltzainok ere ukitzen gaitu, baina ohartzen gara kontsumitzaileari segurtasuna eta konfiantza ematea ezinbestekoa dela.

Arazo honen inguruan informazio eza ere nahiko handia da, ezta?

Nire ustez, ez da nahiko ahalegin egin. Esate baterako, labelaren kontua guztiok onartuko dugu beharrezkoa dela, kalitatea bermatzeko eta kontsumitzaileak segurtasuna izan dezan. Baina, ez zaigu egokia iruditzen hamaika label eta izen ezberdin agertzea, horrek nahaspila handitu besterik ez duelako egiten. Lortu behar duguna da guztiok elkartzea, eta berme guztia izango duen etiketa sistema erabiltzea, hau da, abelburua non jαιο, non hazi, eta non hil den esango diguna, baina baita zein elikagairekin eta zein sistema produktiborekin hazi den ere. Hau da gaur egun dugun erroka, eta gure labelak bide horretatik ez badu egiten, galduta gaude. Krisi honek alde txarrak dituen bezala, onak ere izan beharko ditu, eta okela ona ekoizten duenak sariren bat jaso beharko du. Ez dut esan gura okela elite batendako produktua bilakatu nahi dugunik, baina bai bere ordain egokia izatea.

Txuletari hezurra kentzeko erabakia lagungarria izan daiteke arazoa konpontzeko?

Egia esanda, zalantza bat sortzen zait: orain egiten diren test prioniko horiek ustez berme osokoak dira, eta hortaz, mahai gainera kalitate txarreko okelarik joango ez den bermea. Zertara dator, orduan, erabaki hau? Azkenean, kezka bat gehiago sortzeko besterik ez du balio. Nik neuk hezurrarekin jaten jarraituko nuke. Segurtasun neurriak ondo daude, baina beti ere ez badute alarma handiagoa sortzen.

Zertan eragingo du horrek hainbat sektoreengan?

Garbi dago kontsumo ohiturak behin



ENKO AZKARATE

Maite Aristegi

EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEKO (EHNE) IDAZKARI NAGUSIA

“Baserritarrok gizarteari egiten diogun ekarpena ez da baloratzen behar adina”

BASERRIKO PRODUKTUAK

“Baserrian ekoizten ditugun produktu askok duela hamar urteko salneurri bera dute”

NEKAZARITZA EREDUA

“Garrantzitsuena da ze eredu nahi dugun nekazaritzarako eta abeltzaintzarako. Orain, arazoa behiak dira, baina hor daude transgenikoak, hormonak, antibiotikoak...”

aldatuz gero, zaila izaten dela lehengoe-tara bueltatzea, eta hemen oso okelazale-ak izanda ere, ikusi egin beharko litzate-ke ohitura hori aldatuz gero zer gertatu-ko litzatekeen. Sagardotegiei, adibidez, kalte handia ekarriko die erabaki horrek; baina, gehiago kezkatzen nau abeltzaint-ztatik bizi den jendeak, ni kasu, merkatua lur jota dago eta. Bizpahiru asteko txahal txikiengatik sei mila eta zazpi mila duro artean ordaintzen bazituzten, gaur egun, mila durotan saltzen dituzte.

Ia 14 urte daramatzazu EHNE lanean, horietatik lau idazkari nagusi beze-la. Noiz arte ikusiko zaitugu idazkari?

Datorren apirilean beteko ditut lau urte idazkari nagusi bezala; kongresua egi-teko eguna jarri barik badago ere, apiri-lean esango diot agur postu honi. Orain, baserriari begira nago, EHNE utziko ez badut ere, beste hainbat lan egin daitez-ke-eta idazkari nagusi ez izanda ere. Bai-na; batez ere neure baserriari eskainiko diot denbora. Politikagintzan ere izan nin-

tzen, Bergarako Udaleko zinegotzi, baina ez dut neure burua hor ikusten.

Nekazarien artean berregituratze prozesuan ei zabilzate. Zelan dago kontua?

Duela denbora bat antolamendu ere-du jakin bat hartu genuen, eta eredu honen barruan herrialde bakoitzak bere antola-kuntza propioa dauka. Gero, lau herrial-deok elkartu, eta horrela egiten dugu lan. Baina, nire ustez, ez da eredurik onena; herrialde bakoitzak bere antolakuntza edukitzea ona bada ere, garrantzitsuagoa da guztiok aho bakar bateratuan berba egi-tea, bai Iparraldeko nekazari eta abel-tzainekin eta Estatukoekin edo Europakoekin ere. Nik horrela ikusten dut.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari hauteskundeak deitzea eskatu diozue behin eta berriro. Zer dela eta?

Gure ustez, guztiondako onuragarria izango litzatekeelako. Gaur egun, sindika-tuek defendatzen dituzte nekazari eta abel-tzainok, eta baita gure interesak ere, bai hemen eta bai gainontzeko toki guztietan ere. Hortaz, gure ordezkariak sindikatu horiek dira, baina ez dakiguna da nor orde-zkatzen duen sindikatu bakoitzak, eta horre-tarako ezinbestekoak dira hauteskundeak. Horrela jakingo genuke bakoitzak zein ordezkapen maila duen, eta ordezkari-tza horren arabera zein egin behar duen, eta non.

Behiena alde batera utziz, zein da gaur egun baserritarrek duen arazo edo premia nagusia?

Behi eroena *estokada* bat izan da, bai-na sakonean, garrantzitsuena da ze ere-du gura dugun nekazaritzarako eta abel-tzaintzarako. Orain, arazoa behiak dira, baina hor daude transgenikoak, hormo-nak, antibiotikoak, ... Hortaz, egin behar dugun planteamendua ondorengoa da: zelako nekazaritza eta abeltzaintza nahi ditugun, eta kontsumitzailea produktu horregatik zenbat ordaintzeko prest dago-en. Hortik aterako da irtenbidea, bestela hondoa joko dugu. Kontuan izan behar da gaur eguneko produktuek duela hamar urteko prezio bera dutela, eta laguntza batzuekin zertxobait konpontzen bada ere, ohiturak dira aldatu beharrekoak.

Gaur egun, badirudi baserriaren aurre-tik gainontzeko guztia dagoela; baserria ez da behar beste baloratzen. Ez da kontuan hartzen janariaren arloan eta beste hainbat esparrutan baserritarrok egiten dugun ekarpena. Hortaz, lehen esan beza-la, jakin behar dugu zer-nolako nekazari-tza eta zenbat nahi dugun, eta horren ara-bera ekin, behar den bezala.

Azpiegitura handien auziek ere (AHT, autobidea, parke eolikoak, ...) gertutik harrapatzen zaituztete...

Bai, obra handi guztiak baserriarren lurraren gainean egiten dira, eta atera kon-tuak zenbat lur galtzen diren hor. Horrez gain, gelditzen diren lurretatik asko zati-tuta gelditzen dira, ur arazoak sortzen dira, zaratak, eta beste hainbat kalte egoten dira azpiegitura handi hauek egiten diren tokie-tan. Gero nahi izaten dute diru sariekin kon-pontzea, baina ez da etorkizunari begira ezer egiten. Baserritar batek onar dezake diru horren truke hori egitea, baina kontuan izan behar da kaltea egina dagoela, autobide edo trenbide hori urteetan hor izango dela.

Zuek baserri turismo etxea zabaldu zenuten duela pare bat urte. Irtenbide bat da hori baserritarrendako?

Azken baten, osagarri bat da. Guk ere gure aukerak aprobetxatu beharra dau-kagu, eta jakina, gure baserriak, lurrek eta parajeek horretarako bidea ematen badigute, horri heldu behar. Baina, beti ere, osagarritasun baten barruan, betiko baserriaren funtsa galdu barik. Baserriti-k bizi garenok pentsatu behar dugu neka-zaritzara eta abeltzaintzara hori osatzeko ze aukera ditugun.

Olaizola II.a-Imaz eta Gonzalez-Lasa III.a bikoteak aurrez aurre datorren egubakoitzean Aramaion

Aurretik, Berraondok eta Xalak eskuz banakako partidua jokatu dute

Datorren egubakoitzean, hilak 16, goi mailako pilota jaialdia izango da Aramaio pilotalekuan, 22:30etik aurrera. Aramaio Barea pilota elkarte herriko udalarekin harremanetan izan da azken hilabeteotan, profesional mailako pilota jaialdia antolatzeko. Azkenean, udalaren laguntzaz, eta Aspe pilota enpresaren eskutik, jaialdia osatu dute. Lehenbizi, Berraondo antzuolarrak eta Xala iparraldetarrak indarrak neurtuko dituzte eskuz banako lagunarteko partiduan. Jarraian, Aimar Olaizola eta Imazek Gonzalez eta Lasa III.aren aurka jokatu dute.

Aramaio Barea pilota elkarte arduradunak pozik azaldu dira profesional mailako jaialdi bat herrian antolatzeagatik. Izan ere, orain dela bi urte antolatu zuten azkenengo aldiz Aramaion profesionalen pilota jaialdi bat. Aramaio pilotazaleak euren pilotalekuan goi mailako partidua ikusteko irrikitan daude, Barea ordezkariak azaldu diguten bezala. Datorren egubakoitzeko jaialdiak milioi erdi inguruko aurrekontua dauka eta, esan bezala, Aramaio Udalak ordainduko du. Udalak urte osorako plangintza osatzeko agindu zien pilotazaleei, eta datorren asteko



Aimar Olaizola binakako txapelketa bikaina egin du Bernarekin eta Arroyo II.aren bikotea osatuz.

MIKEL FRAILE

jaialdia plangintza horren barruan kokatzen da.

Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du Aramaio jaialdia bere lehenbiziko katetik egubakoitzean bertan, eta, antolatzaileen arabera, pilotalekuan sarre ona izatea espero dute egun

horretan. Barea pilota elkarteak azpimarratu duenez, frontoia bergailuaren bitartez berotuko da egun horretan. Aramaio pilotalekuak 400 lagun ingururentzako edukiera dauka eta sarrerak egubakoitzean bertan jarriko dituzte salgai frontoiko txartel-

degian. Aitor Aspe, Barea pilota elkarte kidearen arabera, "oker ez banabil, 350 lagun inguru izan ziren orain dela bi urteko profesional jaialdian, eta datorren egubakoitzean kopuru horretara hurbiltzea arrakasta litzateke guretako. Uste dugu itxuratuko dela

frontoia, herriarendako eta pilota elkartearendako egun garrantzitsua da eta".

Aramaio eta inguruko pilotazaleek ez dute aitzakiarik huts egiteko, antolatu duten jaialdia primerakoa da eta. Aimar Olaizola eta Lasa III.ak binakako txapelketa jokatu dute eta Aimar oraindik aukerak ditu finalerdiarako sailkatzeko. Gaur, egubakoitza, hilak 9, Asier Olaizola eta Goñi III.ak partidua erabakigarria jokatu dute Azkoitia Titin eta Zezeagaren aurka. Asierrek eta Goñi III.ak irabaztekoan Aimar eta Berna finalerdiarako sartuko lirateke domekan, Astelena pilotalekuan, Capellana eta Elkorori irabazten badiete.

SAN MARTIN TXAPELKETA

Bestalde, maiatzetik uztaileraren bitartean afizionatuen mailako San Martin txapelketa jokatu dute Aramaion. Martxoan irekiko dute izena emateko epea, eta izena ematen duen bikote kopuruaren arabera erabakiko dute txapelketa zein sistemarekin jokatu duten. Nahiz eta aurten Euskal Herriko klubaren arteko txapelketan esku hartu ez duen Barea elkarteak pilotazaleen bultzatzen jarraitzen du.

EDU MENDIBIL

Arrasate Hiria I. xake torneo gaurtik apirilaren 6ra, egubakoitzero

Hamar jokalaririk izango dira lehen Arrasateko osoko bilkuren aretoan

Gaur, egubakoitza, hilak 9, hasiera emango diote Arrasateko Udaletxean Arrasate Hiria I. xake torneoari, 19:00etan. San Andres xake taldeak antolatuta, hamar jokalaririk izango dira lehen, eta partidak egubakoitzero jokatu dituzte osoko bilkuren aretoan, 19:00etatik 23:00etara. Honako jokalaririk hauek esku hartuko dute: Carlos Nava (Bilbo), Luis Olaizola (Donostia), Cristobal Limeres (Gernika), Jesus Mari Agirretxe (Oreret), Gerardo Fernandez (Bilbo), Eduardo Sanz (Donostia) eta Arrasateko San Andres taldeko Luis Angel Ortega, Txema Hernando, Isidro Ruiz eta Josu Tornay.

Txapelketa itxia denez, goian aipatutako jokalariei gonbidapena egin diete txapelketan esku hartzeko. Txapelketa Euskadi,

Espainiako eta nazioarteko sailkapenerako puntuagarria izango da. Carlos Nava bilbotarra eta Luis Olaizola donostiarra ditugu txapelketa irabazteko faborito nagusiak. Urtarrilean Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Fran Miguel atxabaltarrak ezin izan du Arrasateko torneoan esku hartu. Euskal Herriaren profesionalak kenduta, jokalaririk onenetakoak biltzea lortu dute antolatzaileek. Txapeldunak 60.000 pezetako saria eskuratuko du, eta horrez gain, sailkapenerako lehen zazpiendako ere sariak izango dira.

Josu Tornay antolatzaile lanean ibili da, eta bere hitzetan, "maila altuko txapelketa izango da, nazioarteko sailkapenerako puntuagarriak diren torneo gutxi izaten dira eta Euskal Herriaren

urtean". Txapelketa ligaxka eran jokatu dute: jokalariek elkarren aurka jokatu dute. Hortaz, bederatzi jardunaldi jokatu dituzte. Txapelketaren emaitzak ondoko helbide elektronikoa jarraitu ahal izango dira: www.ajedrez21.com.

Bailarako taldeei dagokienez, Aretxabaletako Arlutz xake taldea Euskal Ligan ohorezko mailan ari da, eta mailari utsiko dio. Bestalde, San Andres xake elkarrekin bi talde ditu preferente mailan, eta A taldea Urnieta liderrengandik puntu bakarrera dago. Azken jardunaldian erabakiko da bietako zeinek lortzen duen Euskal Ligarako igoera. Bergarako xake taldea, oster, lehen mailan jokatu ari da, eta Arrasaten maila horretan beste talde bat du. /E.D.



Arrasateko txapelketa itxian Euskal Herriko jokalaririk onenetakoak batuko dira.

Podiuma

Jose Jabier Barkero | EIBAR TALDEKO JOKALARIA |

Jose Jabier Barkero futbolari atxabaltarra (21 urte) gazte mailako munduko txapelduna izan zen Espainiako selekzioarekin 1999an, Nigerian. Etorkezun bikaina zutela esan zuten orduan, baina Realean ez du oraindik tokirik lortu. Toulouse taldean izan ondoren, Eibarren arituko da ekainera bitartean.

Zer moduzkoa izan da Frantziako esperientzia?

Kirol aldetik, txarra, ez nuelako jokatzeko. Bestela, esperientzia aberasgarria izan da han aurkitutako jendeagatik eta giroagatik. Toulousek iaz igo zen lehen mailara, eta jokatzeko asmoarekin joan nintzen hara. Bonillarekin batera. Liga hasieran gauzak ez zitzaizkigun nahi bezala atera, eta ni ez nintzen hasierako hamaikakoan sartzen. Giresse entrenatzailea bota eta Nazaret ekarri zuen zuzendaritzak, baina gauzak ez ziren, nire kasuan, aldatu, eta jokatu nahi nuenez, Realak eta biok erabaki genuen irtenbiderik onena Eibarrera etortzea zela.

Zelakoa da Frantziako liga?

Teknikoki, oso liga ona da. Talde guztiek ondo jokatzen dute, teknikari lehen-tasuna ematen diotelako. Hemengo taldeekin konparatuz gero, defentsa eta taldearen antolaketa gutxiago zaintzen da.

Eta Bonilla pitxitxi...

Bai, oso gustura dabil hantxe, eta golegile nagusia da orain arte. Bere ezauzgarrietarako, liga aproposa da Frantziakoa: ez da hemengo bezain gogorra,



Realak Barkero utzi dio Eibar taldeari denboraldia amaitu arte.

“Toulousen jokatzeko ez nuenez, Realak eta biok erabaki genuen irtenbiderik onena Eibarrera etortzea zela, eta pozik nago”

“Eibarren ahalik eta ondoen aritzea da nire helburua. Gogor lan egin beharko dut, eta ikusiko dugu ekainean zer gertatzen den”

eta Bonilla, nagusiki, jokalaritza tekniko da. Azkenaldian ere, taldeak hobera egin du eta Bonillak aukerak aprobetxatzen jakin izan du.

Eibarren gauzak ondo doazkizu. Azken lau partiduetatik hiru irabazi eta bestea berdindu egin duzue. Gol bat ere egin zenion Lleidari, Ipuruan.

Bai, pozik nago jokatzen ari naizelako eta taldea ondo dabilelako. Taldekideek ere ondo hartu naute eta gustura nabil. Azken lau partiduetatik gaitzak ziren, baina oso emaitza onak lortu ditugu eta sailkapenean zazpigarren tokian gaude. Lleidari sartutako gola oso pozgarria izan zen niretako, aspaldian ez nuelako golik egiten.

tzen ari naizelako eta taldea ondo dabilelako. Taldekideek ere ondo hartu naute eta gustura nabil. Azken lau partiduetatik gaitzak ziren, baina oso emaitza onak lortu ditugu eta sailkapenean zazpigarren tokian gaude. Lleidari sartutako gola oso pozgarria izan zen niretako, aspaldian ez nuelako golik egiten.

Zein da taldearen helburua?

Mailari eustea, eta hori lortutakoan, zenbat eta gorago heldu, hobeto.

Blas Ziarreta entrenatzaileak zure jarrera goraitatu eta oraindik ere hainbat arlotan hobetu beharra daukazu adierazi du.

Daukazun guztia exigitzen dizu; tenperamentu handiko entrenatzailea da. Niri esan zidan lasai egoteko, dakidan moduan jokatzeko eta Eibarrek egiten duen jokora moldatzeko. Badakit oraindik hobetu beharra dudala, baina entrenatzaileak nigan erakutsitako konfiantza oso garrantzitsua izan da, gauza gehiago egin ditzakedala esan dit eta. Horrek guztiak motibatu egiten nau.

Toshackekin berberik egin duzu? Datorren urtean Realean izango zaitugu?

Ez dut Toshack ezagutzen, eta oraingoz nire helburua da Eibarren ahalik eta ondoen aritzea. Gogor lan egin beharko dut, eta ikusiko dugu ekainean zer gertatzen den.

Clementerekin ez zenuen Realean jokatzeko izan.

Ez, baina Realean izan ditudan entrenatzaile guztiak oso ondo portatu dira nirekin, ez daukat kezaririk.

Reala zulotik irtengo da?

Taldeak kalitatea badauka, oso jokalaritza onak ditu, eta Toshack etorri zenetik, gainera, hobeto ari direla uste dut. Jarraian bizpahiru emaitza on lortzea falta zaie. Nire ustez, taldeak mailari eutsiko dio, asko sufrututa bada ere.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Juanito Osa Pilotaria



Juanito Osa 1980an ateratako argazkian.

Afizionatu eta beteroenen mailan jokatu


zuen eta beteroenoetan aritu zen ondoren.

59 urterekin jokatu zuen azken partidua

El orregiko Sakona baserrikoa orain dela 35 urtetik hona Oñatin bizi da. Mutikotan, auzoko elizpean hasi zen pilotan jokatzeko, eta lehen aldiz, zuriz jantzita, Arrasateko taldearekin jokatu zuen, Roneon lanean ari zela. Soldadutzara joan ondoren, pilota erabat laga zuen, baina 27 urterekin berriro ekin zion, eta Oñatin fitxa egin zioten. Azken partidua Oñatiko beteroenen txapelketan jokatu zuen, 59 urterekin. Ordu arte, eskarmentu handia zuen, afizionatu eta beteroenen mailan txapelketa asko jokatu zituen eta. Juanitoren hitzetan, “afizionatutan baino hobeto ibiltzen ginen beteroenen mailan, eta txapel dezenté irabazteko zortea izan genuen, Mungian, Zumaian, Añorgan eta Elgetan, esaterako”. Besteak beste, Telleria bergararra, Argote tolosarra, Txurruka elgoibartarra eta Zelaia oñatiarrarekin jokatu zuen beteroenotan.

Aloña Mendi taldearekin jokatu izan du beti, eta berak dioenez, “penarik handiena izan da Aloña Mendiri herriaren arteko txapela ez eman izana”. Pilotari edo taldeko delegatu izanda, lau aldiz heldu ziren finalera, baina guztietan galdu egin zuten. “Oñatin oso ondo portatu dira nirekin, eta 1980an omenaldia eskaini zidaten”. Bere burua pilotari moduan definitzerakoan, zera dio: “Atzean jokatzeko nuen eta postura zatarrak izan arren, nahiko segurua nintzen. Pilotan gaztetan ikastea falta izan zait, berandu hasi nintzen eta. Dena dela, pilotan asko disfrutatuta dut: lagun asko egin ditut pilotari esker”. Ulman egiten zuen lan, eta erretiratu zenetik, mendia eta ortua dira bere zaletasunik handienak.

“Penarik handiena izan da Aloña Mendiri herriaren arteko txapela ez eman izana. Lau aldiz heldu ginen finalera, eta guztietan galdu egin genuen”



Juanito Osa • Bergara • 1938



Nire Pronostikoa

JABIER AZPIAZU / Aloña Mendiko futbol saileko arduraduna


Alustizak eta Belokik txapelketako bikoterik indartsuena osatzen dute, nire ustez, eta txapela eskuratzeko faboritoak dira. Retegik eta Errastik ere maila ona erakutsi dute, baina oraingoz an galtzea egokitzen zaiela uste dut. Aspeko koadroan, atzean ondo lagunduta

badago, Titinek ez luke arazorik izan behar partidua aurrera ateratzeko. Futboleant, bi partiduetatik oso parekatuta ikusten ditut, eta horregatik bietan berdinketa jarri dut. Realak zerbait positiboa lor dezake Coruñan, eta Athletic-ek berdinketa lortzea ere, ez legoke txarto.

Astebukaera honetako partiduetak			
A/	Alustiza-Beloki	22	Retegi II.a-Errasti 15
B/	Titin III.a-Zezeaga	22	Olaizola-Goñi III.a 18
C/	Deportivo	1	Reala 1
D/	Athletic	1	R. Madril 1



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Añota

Elosiaga auzoa / Urraki portua
AZPEITIA / 943 81 20 92

- Zabalik, urtarrilaren 14tik iraila arte
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- 550 lagunendako tokia



Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 58 09 74

- Urtarriletik apirila arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik



Isastegi

Aldaba Txiki auzoa / TOLOSA
943 65 29 64

- Apiril bukaera arte zabalik
- Domeketan itxita
- Arkumea (aurrez deituta)
- Urte osoan sagardoa botilan salgai

ZelaiA

ZelaiA

Martindegi, 29 / HERNANI
943 55 58 51

- Apiril bukaera arte txotxa
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Kantauri aldeko sagarrarekin egindako sagardo naturala: sagar garratza, mingotsa eta gozoa



Uzturre

Santa Luzia auzoa, 25 / TOLOSA
943 65 57 72

- Apiril bukaera arte zabalik
- Urte osoan sagardotegia zabalik (apirila eta gero, botilatik)
- Baserriko oilaskoa edo saiheskiarekin menua 2.700 pezetan
- Eserita



Urbitarte

Ergoien auzoa / ATAUIN
943 18 01 19


- Ekain bukaera arte sagardotegia zabalik
- Erretegia urte osoan
- Zutik edo eserita
- Janaria eraman daiteke
- Urte osoan sagardoa botilan salgai



Zabalbide

Zabalbide baserria
ABALTZISKETA / 943 65 21 76

- Apiril bukaera arte txotxa
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Txitxarroa eta zapoa aurrez deituta
- Zutik edo eserita
- Erretegia abuztu bukaera arte



Astarbe

Mendiola baserria / Txoritokieta, 13
ASTIGARRAGA / 943 55 15 27

- Apiril bukaera arte txotxa
- Janaria eraman daiteke
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin), aurrez deituta
- Zutik edo eserita
- Talde handiekin zapatu eguerdietan zabalik



Larre-Gain

Larre-gain baserria
HERNANI / 943 55 58 46

- Apiril bukaera arte txotxa
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin), (aurrez deituta)
- Astelehen eta domeka gauean itxita
- Urte osoan sagardoa botilan salgai

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko otsailaren 9a

Kultura
eta
Aisialdia



Otsailaren
9tik 16ra



AINARA ELIZONDO
Hondarribia / 21 urte
LEHENENGO SARIA

Arrebak nebari gutun bat idazten dio, maitasuna aitortuz. Badaki gizarteak harreman hori ezinezkotzat joko duela, gutuna irakurritakoan nebak ere egin lezakeen bezalaxe; baina, Amaiak bihotzaren aginduak segitu nahi ditu.

Hauxe da, labur esanda, Jardun elkarteak antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketako aurtengo aldian lehen saria irabazi duen gutunaren argumentua.

Ainara Elizalde 21 urteko hondarribitarra da eskutitz horren egilea. "Iazko udan idatzi nuen. Oporretan asti gehiago izaten dut, eta egun baten idatzitakoa hurrengoan berridatzi edo aldatu eta horrela ibili nintzen", diosku Ainarak.

Euskal Filologia ikasten dihardu Donostiako Deustuko

Unibertsitatean, eta idazteko eta irakurtzeko zaletasun handia du: "Andu Lertxundi, Gotzon Garate, Koldo Mitxelena... irakurtzen ditut". Bestalde, hainbat literatura lehiaketara aurkeztu izan da, Bergarako honetara beste behin ere bai. "Oiarzungo Udalak antolatutako baten lehen saria jaso nuen, orain dela sei bat urteko Gabonetan".

Amodiozko gutunen lehiaketa honetarako "zerbait originala" idatzi nahi zuela diosku, "baina gutun guztiek bezala kursi puntutxo bat" ere izan behar zuela. Anai-arreben arteko amodio-harremana kontatzen digu Ainarak bere gutunean. "Fikzio hutsa da, ez dago errealitatean oinarrituta. Alaba bakarra naiz". /E. AZKARATE

Neba maitea:

Zergatik ote odolaren mintzoa zugandik urruntzen nauen aiztoa? Zergatik ote? Balu, bederen, zure bihotzak neure doluaren berri eta baleki hain zaizkidala madarikatu gauak zein egunak zu gabe. Bidegabeki mehatxatzen baititu zure hatsak ene ezpain gosetuok eta irrikaz bainago zure hatzek nire larru likitsua noiz laztanduko zain. Udaberriak berak ere paisaia hitsa dager berriz ere urtero bezala, maiatzaren izarak atsekabez estali du-eta zuganako dudak maitazarre isila. Isila eta ezina akaso, baina erreka ura bezain garbi eta purua dena, harkaitz arteko intzestuaren gerizpean oraindik loratu gabea apika, baina nigan bizirik dirauena inondik ere. **Bazeneki, behintzat, isilpean zaitudala desio; amodioa dela eta ez odolaren indarra zugana lotzen nauen katea eta penitentzia.** Horrexegatik darit bular barrutik negarra; nigandik gertu bazaitut ere, bekatuaren amildegian labaintzen delako ene adore guztia. Nola jantzi hitzez, bada, ezinezkoa den sentipen hau? Nola erantzi, halaber, gainean daramadan lotsa? Zuri halakoak esan ezina da nire benetako mina; gaua iristear denean ere loak hartzen uzten ez nauena.

Neba maitea, zenbat ote dira neure begiok zure omenez isuritako malkoak? Zenbat bidean alferrik galdutako hasperen ehogaitzak? Kristauak ezin du kondena latzregorik paira, benetan diotsut.

Egunen joanak aurrera darrai eta zu besterekin ikusteak areagotu baino ez du egiten oinaze asaldagarri hau. Ausardia, behinik behin, merke salduko balitz, huraxe hartuko nuke aitzindari eta aurrez aurre esango nizekizuke bihotzetik jalgi zaizkidan hitz hauek guztiak. **Egiaren zama, astunegia suertatzen baita maiz eta are astunagoa maitasun kontuak baldin badira tarteko.**

Bihotz urratu hau senda lezakeen baiezkorik, dena den, ez noakizu eskatzera, jakin, bai baitakit ezina dela gure artekoa. Hala ere, inoiz zure ezpainak nireak diren hauetan pausatu nahiko bazenitu, jakin ezazu zain izango nauzula, lorea erlea noiz etorriko egoten den moduan. Pentsa ezazu, honenbestez, **arrebak nauzula denen begien aurrean, baina ohaide grinatsua ilargiaren argitan.** Haurride eta zure gurarien zerbitzari, baina emakume aldi berean. Tamalez.

Aitor laztana, besterik ez. Gustura jarraituko nuke denbora luzez, baina nire jarduna gogaikarri gerta dakizukelakoan hementxe utziko dut zuri aitortu beharreko guztia.

Ezinegona ez baitago letren bidez igartzerik eta odolaren indarra bera ere ezin baitaiteke paper gaineko tinta gorriaz isla. Zure erantzunaren zain geratzen naiz, bada, inoiz erantzuteko betarik hartuko bazenu, behintzat. Hala sinistu nahi nuke.

Bitartean, muxu handi bat eta ez achantzi gogoan zaitudala uneoro.

Arreba eta adiskide duzun, **Amaia.**



Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa

Lehiaketa

Amodiozko gutunen IX. Berrigara lehiaketa

San Balentin, bihotzak tilin

EGUAZTENEAN BANATUKO DIRA BERGARAKO JARDUN ELKARTEAREN AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETAKO SARIAK

M. ANGEL ELKOROBerezibar / ENeko Azkarate

Bergarako Jardun euskara elkarteak urtero antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketa geroago eta ospe eta oihartzun handiagoa hartzen ari da. Orain dela bederatzi urte abiatu zen, Berrigara astekariaren 100. zenbakia ospatzeko. Harrezkero, urtero antolatu dute, arrakasta handia lortuz, batez ere gazte jendearen artean. Aurten, Hondarribiara joan da lehen saria: Aina Elizondok irabazi du 75.000 pezetako saria. Urtero moduan, San Balentin egunean egingo da sari banaketa, ekitaldi xume bezain xarmangarrian.

Lehen saria

AINARA ELIZONDO (HONDARRIBIA)

Argumentua:

Arrebak nebari gutuna idazten dio, maitasuna aitortuz. Badaki gizarteak harreman hori ezinezkotzat joko duela, gutuna irakurritakoan nebak ere egin lezakeen bezalaxe; baina, Amaiak bihotzaren aginduak segitu nahi ditu.

Pasarteak:

"Neba maitea, zenbat ote dira neure begiok zure oroimenez isuritako malkoak? Zenbat bidean alferrik galdutako hasperen ehogaitzak? Kristauak ezin du kondena latzagorik paira, benetan diotsut".

Epaimahaiaren iritzia:

Joxemari Iturralde: "Kalitatezkoa eta taxuzko lana. Beharbada, serio samarra, baina gaiak eskatzen zuen seriotasun hori. Idazkera aldetik, oso ondo".

Kirmen Uribe: "Oso ondo idatzitako gutuna. Hizkera aldetik ederki landua, eta ikuspuntua, nabarmentzekoa, anai-arreben arteko maitasuna kontatzen duelako".

Ainhoa Agirrezaldegi: "Sinesgarritasuna galtzen ez duen gutuna".

Maialen Azpiolea: "Dotorea. Baina, ez da dotorezia horretan galtzen, ez da obra literario hutsa, irakurriko lukeen pertsonak beretzat hartuko lukeen gutuna da, iritsiko litzaiokeena".



Aurtengo lehiaketako epaimahaiko kideak.

ENeko Azkarate

Bigarren saria

DANIEL MARTIRENA (LEGASA)

Argumentua:

Hiru urteko harremana amaitu berri dute, eta Asier ordu arte bizi izandako etxebizitzara doa bereak diren zenbait gauza jasotzera. Ana etxean ez dagoela aprobetxatuz, eta bide batez, gutun hau idazten dio. Etxebizitza horretan elkarrekin bizi izandako uneak gogoratuko ditu, elkar ezagutu zuten eguna, Itoizko urtegiak eurengan izan zuten eragina... Gauzak jaso eta urrutira doa, New Yorkera, horrela bere mina baretuko zaion esperantzaz.

Pasarteak:

"Halatan, behin batez Atarrabian Itoiz Stop kariatat egin kontzertuaren egunsentiak elkartu gintuen. Zigarretaren muxua eskatu nizun. Ezpainak aurreratu zenizkidan atxiki egiteko. Eskaintzari ez nion muzinik egin. Hor-taz, noia edo hala, orduztik zor genion Itoizi

faborea eta, halabeharrez, erromes bihurtu ginen Irati basoaren defentsan: manifestaldi zozketa kontzentrazio pin baraualdi akanpada txiskero jaialdi gaupasa kamixeta pegatina. Aldarri bakarraren aitzakiaz guztietan utz genituen gure sosaren papurrak. Itoiz ez ito. Gelditu. Paralizacion. Stop".

Epaimahaiaren iritzia:

Joxemari Iturralde: "Gustura irakurtzen den gutuna".

Kirmen Uribe: "Oso polita. Ganberrada bat da. Beste gutunen seriotasuna puskatzen du".

Ainhoa Agirrezaldegi: "Oso erreala eta sinesgarria da. Oso xumea, gainera, eguneroko gauzak kontatzen dira, euren ohiturak; orain amorrua eta segidan maitasuna ageri da, giza-harremanetan gertatzen den bezalala".

Maialen Azpiolea: "Originala eta sinteziritatez bete dagoen amodio eskutitza; direnak eta ez direnak esaten ditu egileak, onak eta txarrak, amodioak dituen bi aldeak islatuz".

Bergarar onena
ROBERTO IZAGIRRE

Argumentua:

Ainhoak Joseba Sarrionandiari idazten gutuna. Zuzenean ezagutzen ez duen arretu nabaritzen du, bere pausoak segitu du maite du. Irakurzaletasuna berari zor dio literaturaren bidez sentiarazi dionagatik eserrak eman nahi dizkio.

Pasarteak:

"Neurea behin ere izango ez zarelako eta ziurtasun horrekin maitatu nahi zaitu. Ez dakit non zauden orain. Ez dakit mundu ko zein partetan esnatuko zaren goizero eta zein hizkuntzatan opa izango dizkizute egun onak egunsenti bakoitzean. Parahorretan ba al dago kurloirik?"

Epaimahaiaren iritzia:

Joxemari Iturralde: "Metaliteratura da. Poesia benetan maite duela erakusten eta oso ondo borobildu du bere lana".

Kirmen Uribe: "Maitasuna izan daiteke pertsonetik, naturarekiko, gauzekiko, edizale batekiko eta bere liburu batzuekiko maitasuna izatea gauza ederra da".

Ainhoa Agirrezaldegi: "Ondo idatzitako maitasun diferente bat azaltzen duena".

Maialen Azpiolea: "Gutun polita".

Irakurle gazteen saria

ANDONI ARENAZA (GASTEIZ)

Argumentua:

Prostituta baten eta bezero baten arteko harremana. Egun horretan bertan egin behar du zirt edo zart bezeroak: ematearekin segitu edo lagunarekin aurrera egin.

Pasarteak:

"Ondoren goxo-goxo eta ezari-ezarian gorputz osoa, alderik alde, musukatzen hasi zinen; muxuekin batera, inoiz entzungabe lorerik ederrenak xuxurlatu zenizkidan".

Epaimahaiaren iritzia:

"Sentimenduarekin idatzita dagoen gutuna da; istorio desberdina eta polita. Lehen irakurketan erraz ulertzen dena".

Irabazleak

- 1. saria.** 75.000 pezeta. Aina Elizondo, 21 urte. Hondarribia.
- 2. saria.** 40.000 pezeta. Daniel Martirena, 27 urte. Legasa (Nafarroa).
- 3. Bergarar onena.** 25.000 pezeta. Roberto Izagirre, 39 urte. Bergara.
- 4. Irakurle gazteen saria** Xabier Diaz de Zeroren eskultura. Andoni Arenaza, 40 urte. Gasteiz.

Hainbat datu

Partaidetza:167 gutun
Emakumezkoenak:%67
Gizonezkoenak:%33
Batez besteko adina:20 urte
Bergararik:14
Debagoienetik:29
Gipuzkoatik:83
Bizkaitik:50
Arabatik:27
Nafarroatik:3
Lapurditik:1
Belgikatik:1
Ohiko postaz:%84
Posta elektronikoz:%16

Epaimahaia

Joxemari Iturralde
Idazlea.
Kirmen Uribe
Idazlea.
Ainhoa Agirrezaldegi
Bertsolaria.
Maialen Azpiolea
Iazko irabazlea.

Epaimahai gaztea (ikasleak):

Itxaro Arantzabal.
Andoni Azkargorta.
Ane Olarte.
Mikel Larrañaga.

Epaimahaiaren iritzia

Azkenaldian baztertuta eta gaizki ikusia egon den literatura genero baten berpizkundearan aurrean egon gaitezkeela aipatu du epaimahaiak. Lanen kalitateari dagokionez, denetarik dagoela, baina saritutakoek oso maila altua dutela. Epaimahaiak aho batez aukeratu zuen lehenengo saria.

Umirezko gutunak eta zinikak aurkeztu dituzten arren, ezinezko harremanak islatzen dituzten gutunak dira nagusi, tragikoak. Topikoetatik ihes egiten duten gutun ugari egon da.

Sari banaketa

Ohikoa den bezalaxe, aurten otsailaren 14an, hau da, San Balentin egunean banatuko dira sariak. Aurten, eguaztena da maitasunaren eguna. Sari banaketa ekitaldia, 19:30ean Bergarako Kartzela Zaharrean izango da. Ekitaldiari dagokionez, lehenengo Bergarako soka boskotetaren emanaldia iragarri da. Ondoren, irabazleak euren gutunak irakurriko dituzte, soka boskotetaren laguntzaz. Anartz Agirre eta Moliere Belastegi kazetariak ariko dira aurkezle lanetan.

Kronika

Antzerkia: 'El hombre que confundió a su mujer con un sombrero'

Nire aukera

Egiak diren neurrian, gogorrak


Ordua: hemeretzi, bi puntu, hiru, zero. **Salneurria:** berde bat. Hau da: bat, zero, zero, zero. **Non:** Amaia antzokian, Arrasate **Zenbat jende:** lau, bat, zazpi.

Ramon Bareak egokitutako antzerkia ikusi ahal izan zen Amaia antzokian (Arrasate). Oliver Sacks-ena da testua, hala ere, Bareak nahikotxo aldatu du originala. Peter Brook-en dramaturgiaren oinarritua dagoen antzezlanean honetako aktoreak Paco Sagazazu, Iñaxio Tolosa, Ander Lipus, Itziar Lazkano eta Jone Idiazabal dira, Ramon Barearekin batera.

Arrasaten espainolez eman zuten, euskarazko bertsioa bada goen arren. Antzezetako batek esandakoa da "euskaraz komunikazioa errazago" lortzen dutela, edo, behintzat, euskaldunek beste modu batera ikusten dutela saioa, beste prespektiba batzuekin. Batek daki hala izango den edo ez, Amaian euskaldun askok ikusi genuen gaztelaniako bertsioa eta komunikaziorik egon ez zela ezin esan.

Oliver Sacks-en entsegu neurologiko bat antzeztu zuten aktore profesionalak, hala ere, ikusleondako dokumentala zirudien antzezlana baino gehiago. Kasu neuropsikologikoekin osatutako kontsulten egunerokoa dela esanda labor genezake.

Zoroak? Ba, ez dut uste. Bai esperientzia xamurrak, bereziak, guretako arraro eta ospitale espezialduetarako arruntak, Amaia antzokiko batzuek baita barregarriak ere, baina guztiak, salbuespen barik, GOGORRAK, intentsoak, beren sinpletasunean konplikatuak eta batez ere, egiak diren neurrian, gogorrak.



Aktoreek ondo neurtutako lana gin zuten eta sekula baino jende gehiago hurbildu zen Amaiara.

IBAN ARANTZABAL

Kasu errealetatik abiatuta kontatutako egiak direla inork ez zuen zalantzan jarri. Zoroen antzerkia zela entzun nuen antzezlaren ostean... antzerki zoroa ez behinik behin, dena oso neurtua zegoen eta. Pertsonaiek hamaika kontu kontatzeko:

1- Kasuetako baten, ospitalean egonik Parisen dagoela uste duen emakumea. Zein ezberdintasun du hemen egonik nonahi dagoela uste duen pertsona arruntarekin?

2- Oso kurioa larrosa bat definitzen hasi, eta ikusi, ukitu eta

usaindu arte deskribatu ezin zuen "gaixoa". Guk ere entzun eta irakurri arren ez gara, ba, ikusi arte sinesgogor egoten?

3- Bazen beste bat ibiltzerako eran igartzen zuena nor zetorren edo barrea entzunda bazekiena zein zen. Eta guk badakigu jakin, patilak izan, ile luzea, beltzez jantzi eta porroak erreta ezin dela bertsolaria izan, ezta abokatua edo ingeniaria ere.

4- A! Eta alde bata ikusten zena bakarrik? Kurioa benetan. Gure inguruko askoren antzera ezkerre ez zuen ikusten, ezta iku-

siko ere.

Guk ere aloperidola, edo Errioxako ardoa, edo aspirinak, edo Soberano kopakadak hartzen ditugu tik-ak, edo penak, edo lotsak kentzeko guztiak ere.


Antzezlanean tratamendua behar zutela erakutsi zuten bai paziente eta baita medikuek ere esketx adierazgarrian. Eta gu? Gu ere tratamendua behar dugulako edo tratatuak gara, eta zelan, gainera. Gu gara, hortaz, 5, 6, 7, 8, 9...

IBAN ARANTZABAL

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | Nobela



ZAZPI KOLORE
Jon Arretxe
Elkarlanean
128 orrialde

Beharbada, *Ostegunak* liburuagaitik ezagutuko du irakurleak Jon Arretxe; hala ere, bere obra zabala da oso. Liburu honek *Zazpi kolore* du izena, zazpi direlako bertako kolore eta sentimenduak, ostadar berri baten gisan. Denen azpitik, berriz, bai penak eta bai pozak gozaten dakien egile bat, bizitzaren lilura deskubritzen lagunduko dizuna. Jon Arretxek berak egindako ibilaldietan izandako esperientzietan oinarritua dago liburua. Egoerak, pasadizoak... denak ipuin bihurturik. Edizio zaindua.

LIBURUA | Musika



KEPA JUNKERA TRIKITIXA
Kepa Junkera
Bilbao Bizkaia
Kutxa
200 orrialde

Ondo zaindutako edizioa, argazkiz josia, kolore askotakoa eta kolaboratzaile ugari idatzitako testuekin. Testugile horien artean, hogeitik gora: Edorta Jimenez, Jon Sarasua, Juan Carlos Perez, Joseba Tapia... Aurreko disko baten egin zuen antzera, kolaboratzaile pilo bat erabili ditu. Bere buruaz egindako liburua bada, eta eginda dagoen moduak bere jotzeko era birtuosoa gogorarazten du, ondo egina, jantzia, baina batez ere, birtuosoa. Kantuen hitzak eta partiturak ere badira liburuan.

DISKOA | Hitzaldiak



HITZ BESTE EGINEZ
Bernardo Atxaga
Pamiela
75 minutu

Bernardo Atxaga idazle bizaeragatik dugu ezagun; oraingoan, berriz, Pamielak phonogauzak sailean atera du Bernardo Atxaga hizlaria. Lan honetan hamar mintzaldi biltzen dira. Mariano Ferrer kazetariaren irratsaio baterako pentsatu zituen Atxagak hitzaldiok, eta irratian eman ere eman ziren.


Hizpide ditu Atxagak: iragana, zahartzarua, arrazakeria, telebista... Azken honen ganean diharduela, halaxe dio: *Zenbat eta makalagoa izan gizartea, hainbat eta indartsuagoa telebista.*

Fran Iturbe
Gitarrista

Ni nahiko pop-zalea naiz, eta horrelakoxe talde bat aukeratuko dut, erraza ez izan arren.



Talde honek kultura ingelesa laburbiltzen du eta hitzetan, pop-ean oso ohikoak diren kontuak kontatzen ditu. Eguneroko bizitza islatzen dute istorioek eta era horretan lortzen dute unibertsaltasuna. Edozein gai kantatuta ere erakargarri bihurtzen dute. Hor aldetik altxor bat da disko hau, sinplea eta, era berean, glamurosoa, oso musikala eta melodia jantziek osatua, imaginaria pop handikoa. 1995ean argitaratu eta kritikaren laudorioak jaso zituen disko honetan kantu borobilak daude, eta horietako bat da "disco 2000".

'DIFFERENT CLASS'
Pulp

IBAN ARANTZABAL

Otsaila: 9-16

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

OÑATI

> **Txalo** taldearen *Emaztea kape-larekin nahastu zuen gizona* antzezlan egubakoitzean, hilak 16, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ELORRIO

> **Gorakada** taldearen *Aitonaren kontuak* egubakoitzean, hilak 11, Arriola aretoan, 17:00etan.

Musika

BERGARA

> **Puto amoak matematiketan** taldea egubakoitzean, hilak 9, gaztetxean, 22:30ean.

> **Babes in Toyland** eta **Doss** taldeak zapatuan, hilak 10, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Mikelerrazkin-HF** domekan, hilak 11, Pol-Pol tabernan, 19:00etan. Jardun elkarteak antolatuta.

> **The Smugglers** taldea eguenean, hilak 15, Jam aretoan, 22:00etan.

ELORRIO

> **Moli y Cotoli** zapatuan, hilak 10, gauerdian Ateneoan. Arriolako III. flamenko emanaldien barruan. Datorren egubakoitzean, hilak 16, **Increpacion Danza** taldearen d.C. (*annus Domini*), 22:30ean.

Erakusketak

ARRASATE

> **Jose Zufiaurre** margolari bizkaitarraren lanak Toki-Eder kafetegian, otsailaren bukaera arte.

> **Iñaki Bruñaren** margolan eta eskultura erakusketak Udalako Larrinetxe jatetxean, martxo bitartean.

BERGARA

> **Josu Okinaren** margo erakusketak kultura etxeko erakustokian.

> **Beatriz Perez** eta **Miren Etxeberriaren** olioak Nahikari tabernan. Biak ere Eburne Erañaren ikasleak dira.

DURANGO

> **Juan Jose Altuna Akizu** bergarraren margolan erakusketak

Durango Arte eta Historia museoan (San Agustinalde, 16), otsailaren 25a arte.

BILBO

> **Bingen De Pedro** bergarraren margolan erakusketak Bilboko Berta Belaza galerian (Arrikibar plaza, 5), otsailaren 23a arte.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Arte plastikoen III. lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure Leku tabernak. 125.000 pezeta saria emango da. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira, otsailaren 28a baino lehen: Gure Leku taberna. Zarugalde, 17-behea. 20500. Arrasate.

BERGARA

> **XVI. Literatura lehiaketa.** Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabek eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko eta entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dira. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> **Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izen-ematea eta argibideak Loramendi elkartearen edo 943 77 09 70 telefonoan.

> **Eskulan eta bainika ikastaroak,** Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Eskulan ikastaroa martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Bainikakoa, oster, eguztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea Loramendi elkartearen bertan.

> **Panpinak egiteko ikastaroa** otsailaren 21etik aurrera. Eguaztenetan emango da, bi txandatan, 09:00etatik 11:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

ARRASATE

> **Masaje bateratua** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

> **Alboka eta txalaparta** ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak.

Albokakoa San Juanak bitartean emango da zapatuetan, Arrasate Musikalen, goizez. Txalapartakoa, aldiz, astelehen eta egubakoitzetan izango da, Musakolako saloian, arratsalde. Argibide gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.

> **Literatura tailerra** martxoaren 15etik apirilaren 5era, eguztenetan Monterronen, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea Jon Alonso izango da. Izen-ematea: 3.000 pezeta (2.000 pezeta ikasle eta langabetuendako). Argibideak 943 77 00 65 telefonoan.

> **Euskal dantzen** ikastaroa. 10 urtetik gorakoendako. Martxoaren 2tik San Juanak bitartean, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era. Matrikula: 1.000 pezeta. Argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

> **Zeramika ikastaroa,** Loixe elkarteak antolatuta, otsailaren 20tik ekainaren 21era, martitzen eta eguztenetan, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

BERGARA

> **Jantzigintza** ikastaroa Anezkan, Espoioan, astelehen eta eguzten arratsaldeetan. Eguzetan ere ikastaro bat izango da: **Makina bidez bordatzeko** ikastaroa, hain zuzen. Eskolak, eguneroko, bi ordukoak izango dira. Argibideak 943 76 59 25 telefonoan.

BERGARA

> **Artearen historia** izeneko ikastaroa. Irakaslea Oihana Garitano izango da. Izen-ematea Etxepare liburu dendan. Argibideak 943 76 35 99 telefono zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> **El Salvadorri laguntza** emateko, kontua zabaldu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.

> **Indiarako laguntza** emateko, kontua zabaldu ditu Medicus Mundi erakundeak Euskadiko Kutxan, Kutxan eta BSCH banketxean.

> **Batzar nagusia San Viator ikastolan** eguztenetan, hilak 15. 18:15ean lehen deialdian, eta 18:30ean, bigarrenetan. 1999/2000 ikasturtearen memoria eta kontuak aurkeztuko dituzte, 2000/2001 ikasturteko gestio plangintzaren berri emango da

eta kontseilari berriak aurkeztuko dituzte.

ARETXABALETA

> **Eski irteera.** Murruxiko mendizale elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 17 eta 18rako Luz Saint Sauviert-era, Gavarnie eta Luz Ardideneko estazioetan eskia-tzeko. Ikasle bazkideendako, 11.000 pezeta; gainerako bazkideendako, 12.000; eta gainerakoendako, 13.000 pezeta. Autobusa, ostalua eta estazioerako sarrera eta aseguruak barne.

> **Elkarriko hitzaldi aurkezpena** martitzenetan, hilak 13, Murruxiko lokalean, 19:30ean. Hizlaria: Juanjo Perez.

> **Gure seme alabei lan egiteko ohitura onak nola erakutsi** hitzaldia martitzenetan, hilak 13, Kurtzebarri eskolako liburutegian, 18:30ean. Hizlaria: Iñaki Aporta izango da.

> **Presoak eta nazio eraikuntza** hitzaldia eguztenetan, hilak 15, udal etxe zaharrean, 19:30ean. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

> **Berto afaria** Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballez bertsoariekin hilaren 17an, Urbaltz elkartearen, 21:15ean. Txartelak Arlutzen eta Urbaltzen salgai hilaren 11ra arte.

BERGARA

> **Goi mailako zikloak Miguel Altunan** gaiaren inguruko hitzaldia



ERAKUSKETA

ALTUNA AKIZUREN MARGOAK DURANGON

Juan Jose Altuna Akizu (Arrasate, 1943) margolariaren azken lanak ikusteko aukera izango da otsailaren bukaera arte Durangon. 1977an Hondarribian bere lehen saria irabazi zuenetik, ibilbide luzea egin du Altunak margolaritzan. Joan den urtean, besteak beste, Urretxun, Burgosen, Balmasedan, Beasainen, Caceresen, Lizarran edo Zuastin saritu zuten Juan Joserena lana. Estiloa abstrakzio lirikoaren inguruan koka daiteke.

Noiz: Otsailaren 2tik 25a arte. **Tokia:** Durango Arte eta Historia museoan.



LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE
943 79 27 27 • 943 79 13 55

JAIOTAKOAK

Maria Milagros Yarza Aiastui
Abenduaren 27an, Oñatin
Asier Casado Biain
Urtarrilaren 18an, Oñatin.
Josu Aizpurua Olabe
Urtarrilaren 30ean, Aretxabaletan.
Julen Agirre Erostarbe
Urtarrilaren 30ean, Oñatin.
Eneko Agirre Erostarbe
Urtarrilaren 30ean, Oñatin.
June Igarza Gimber
Urtarrilaren 31n, Bergaran.
Xabier Alvarez Flores
Otsailaren 2an, Aretxabaletan.
Laura Valenti Vinagre
Otsailaren 2an, Arrasaten.
Jone Isturiz Zubillaga
Otsailaren 4an, Eskoriatzan.

HILDAKOAK

Maximo Hernandez Muñoz
Bergaran, urtarrilaren 25ean,
71 urte zituela.
Jose Mari Azkoitia Urkia
Oñatin, urtarrilaren 31n,
73 urte zituela.
Marcelina Axpe Beitia
Aramaion, otsailaren 1ean,
86 urte zituela.
Isabel Milikua Yarza
Oñatin, otsailaren 1ean,
94 urte zituela.
Ladislada Leibar Telleria
Oñatin, otsailaren 1ean,
94 urte zituela.
Maria Cruz Astigarraga Mendizabal
Arrasaten, otsailaren 1ean,
93 urte zituela.
Juan Manuel Lopez Lopez
Oñatin, otsailaren 3an,
62 urte zituela.
Teresa Zubia Leibar
Oñatin, otsailaren 3an,
76 urte zituela.
Jose Manuel Garcia Martin
Arrasaten, otsailaren 4an,
83 urte zituela.
Victoria Tomasa Oianguren Jauregi
Bergaran, otsailaren 5ean,
85 urte zituela.
Lucio Ubera Mujika
Elgetan, otsailaren 5ean,
92 urte zituela.
Jose Manuel Uranga Ormaetxea
Arrasaten, otsailaren 6an,
96 urte zituela.

EZKONDUAK



Aitor Azkarate Lamariano eta
Ainhoa Alberdi Martin,
Antzuolan, otsailaren 3an.




Josu Aizpurua Olabe eta **Jaione** ama, atxabaltarrak biak. Urtarrilaren 30ean jaio zen eta 3,860 kilo pisatu zuen. Aita **Iñigo** da, atxabaltarra.




June Igarza Gimbert bergararra **Loli** amarekin, bergararra hau ere. Urtarrilaren 31n jaio zen, 2,8 kilorekin. Aita **Iñaki** da, antzuolarra.




Joan zen zapatuan, hilak 3, ospatu zituzten urrezko ezteiak **Kontxita Egaña** eta **Jesus Berroia** bergararrek. Duela 50 urte ezkondu ziren Bergarako San Pedro parrokian, eta, eurekin batera, Kontxitaren ahizpa Karmen eta Jose Mari Gallastegi (beheko argazkian). Hauek ezin izan dute urteurrena ospatu, baina euren senitartekoek gogoan izan dituzte. Zapatuan Lasaja jatetxean bazkalduta euren senitartekoekin, eta musika eta abestiak ere ez ziren falta izan. Zorionak bikote!




Julen eta **Eneko Agirre Erostarbe** bikiak, oñatiarrak, urtarrilaren 30ean jaio ziren. Ama **Amaia** da, oñatiarra, eta aita **Txema**, bilbotarra.



Joseba Kalboetxeaga Cano oñatiarra, **Mikel** anaiarekin. Otsailaren 3an jaio zen. Ama **Aurora** da, oñatiarra, eta aita **Migel Angel**, bergararra.



Jone Isturiz Zubillaga eskoriatzarra, **Aitziber** ahizparekin eta aitarekin. Otsailaren 4an jaio zen. Ama Ana da, durangarra, eta aita Jose Mari, mondragoetarra.



Oihane Lizarralde Ugalde antzuolarra **Ainize** ahizparekin eta aitarekin. Otsailaren 4an jaio zen. Ama, **Mari Paz**, zornotzarra da; aita, **Juan Kruz**, antzuolarra.



Benito Herranz eta **Rosina Fuentenegrok** ere urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Antzuolan bizi diren arren, segoviarrak dira biak, eta bertako Aldea Real herrian ezkondu ziren 1951ko otsailaren 6an. Datorren domekan ospatuko du bikoteak euren senitartekoekin batera. Zorionak, bikote!

ESKELA

Luzio Ubera Mugika

Elgetan hil zen 2001eko otsailaren 5ean, 92 urte zituela.



Zure senideok ez zaitugu ahaztuko

ESKER ONA

Aurelio Basabe Biteri

Bergaran hil zen 2001eko otsailaren 2an, 94 urte zituela.



Ez agurrik, ez adiorik, aita, laster arte

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Angelina Urmeneta Garcia

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 11, 13:00etan, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maritxu Unamuno Goñi

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 11, 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Candida Zornoza Eletxa

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 11, 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Larrañaga Amiano

Florencio Alustizaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 11, 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Denbora aurrera doa, baina betirako zaitugu maite.



Umore giroan

David Peñalver

MAMORRUA

Aramaixoar bat okindegi batian:
— Hi, atzoko ogixak mamorrua jaukak barruan.
— Eh?, eta nik ogixa bakarrik kobrau!

BIHOTZ-BIHOTZIANA

Neska batek bere mutillari:
— Ai...! Bihotzan barru-barruan zarioat.
— Ba bihotzekuak emon ezkerro, ez neri kulparik bota!

ERLOJUA

Bi lagun:
— Hi, oin dala hamar urte-tik ez dabillen erloju bat jakat.
— Eta zergaitik ez dok bota?
— Egunian bi bidar ordua puntuan emoten jok!

NAGUSIXAREKIN

HASERRE
Mutilla hasarre etxeratu da eta esan dotsa amak:
— Zer, seme, hasarre zatoz?
— Bai, ama, nagusixak gauza bat esan dosta eta ez badi-ttu bere berbak jaten ez naiz enpresara bueltauko.
— Zer esan dotsu ba?
— Alde hemendik enpresatik!

AUTUAN

Badoiaz bi lagun autuan eta kopiloto doianak esaten dotsa gidarixari:
— Hi, ardura dosk bentanillia igotzen bajuat?
— Bardin jostak, apurtuta jaok eta!

Hitz gurutzatuak

Luma

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1/ Poxpoloa. 2/ Erail. Bizkaian, hiri. 3/ Atziki femeninoa. Kezka. 4/ Arotzaren tresna. Röntgen. Oxigenoa. 5/ Potasioa. Elkarreak. 6/ Ut! Jezarleku-mota. 7/ Gizon izena. Joan nadin. 8/ Antolatua. Ate, hitz elkarketan. 9/ Kanpo. Hala bedi. Sufrea. 10/ Suari dario. Gaiak.

Goitik behera

1/ Sasikoak. 2/ Izan. Alde. 3/ Haur izkeran, musu. Tontorra. Bokala. 4/ Galdeketa. 5/ Zaldiaren ile zurrin latza. Apal. 6/ Tona. Deialdia. Euskaraz eta kitto! 8/ Hegazti-mota. Bat. 9/ Oratu aditzaren infinitiboa. Hutsa. 10/ Interjekzioa. Ogi egilea. Bokala.

Bila-bila 7



Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Zein da adin-tarterik jendetsuena?

Honako hau irakasleentzako moduko galdera izan liteke. Jakinekoea da garai batean eskolak gaur egun baino beteago ibili zirela. Baina asmatuko ote zenuke zein zen 1996ko errolda egin zenean, Debagoieneko adin-tarterik jendetsuena?

- Orduan, 20-24 urte zituena.
- Orduan, 35-39 urte zituena.
- Orain, 50-54 urte dituen.

Erantzun zuzena: Orduan, 35-39 urte zituena (2.739 bizilagun). Hurrengo adin-tarte jendetsuena 1996an 20-24 urtekoena zen (2.684 bizilagun) eta 50-54 urtekoena txikiagoa zen: 2.089 bizilagun.

Soluzioak



Ezker eskuma
1/ Supitezkoa. 2/ Akatu. Huri. 3/ Sa. Ardua. 4/ Ingude. R. O. 5/ K. Anaidiak. 6/ Urki Aulki. 7/ Manex. Noan. 8/ Era. tua. Ata. 9/ Alt Amen. S. 10/ Kea. Ekaiak.
Goitik behera
1/ Sasikunreak. 2/ Ukan. Tarte. 3/ Ukan. Tarte. 3/ Pa. Gaina. A. 4/ Itanketa. 5/ Zurda. Xume. 6/ T. Deiak. AEK. 7/ EHU. Dun. Na. 8/ Kurrioa. 1. 9/ Ora. Akatsa. 10/ Alt Okina. K.

Horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Aspalditik espero zenituen berriak jasoko dituzu. Horrekin eta orain daukazun egonkortasunarekin zure ideiak sendotuko dira. Ingurukoekin harreman estua izatea komeni zaizu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Erabateko egonkortasuna lortzeko, oraindik pixka bat itxoin beharko duzu. Presioa uxatu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Buruan darabilkizun kontraesanetan objektibotasuna bilatu. Erabateko pasibotasuna izango duzu une batzuetan, eta beste une batzuetan geratu barik ibiliko zara. Hausnartu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Estimulu gogor batek eta eginbehar ugari ez dizute uzten geldi egoteko eta pentsatzen hasteko denborarik.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Zure buruak esaten dizunari entzun, eta behar duzun euskarri fisiko, emozional eta mentala topatuko duzu.

VRIGO

abuztuak 23-irailak 22

Lehentasunen eta konpromisoen artean aukera egin beharko duzu. Ezetz esaten ikas ezazu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Nahiz eta zintzo jokatu, egoera gaitzei aurre egin beharko diezu. Irtenbide edo soluzio egokiak topatzeko gaitasuna izango duzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Bizitzaren kontrola izan gura duzu, baina egoerek eurek eskatuko dizute zeren alde egin eta zelan jokatu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Orain dituzun konpromisoak berrazter itzazu. Zure nahien gainean hausnarke-ta egin.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Bakarrik egoteko denbora har ezazu, zure tokia eta lekua topatzeko; finean, zure burua ezagutzeko.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Autonomia eta askatasun beharrei lehentasuna emaitzietan; horretarako, konpartitzeko duzun modua birziklatu eta harmonizatu beharko duzu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Buruan darabilzuna errealitate bihurtzeko eta abiarazteko, gogoz ekiozu.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Bailarako
berriak,
bailarako
jendea,
bailarako
telebistan.

Goitb
Goiena Telebista

Goiena Telebista

Telebegi

Gamelua

Telebistaren parean ematen ditugun minutuak bi jatorduen inguruan pilatzen dira, gehienbat. Zaila da esaten mahairako dugun zaletasuna aprobetxatzen duten edo programazioaren eraginez erabakitzen dugun jatekoari noiz eskua sartu.


Gurean, telebista-kontsumoaren patrioiak, gameluak bezala, bi konkorratu.

Lehena, eguerditik tele-diarioa amaitu artekoa da.

Bigarrenak, handiena eta luzeena, ingelesez *prime-time* izena du. Zortzi eta erdietan hasi eta hiru ordu luze hartzen ditu bere menpe.

Telebista-kontsumoan herrialde batetik bestera alde dago. Esaterako, gauza batzuetan frantsesak eta italiarrak bezalakoak gara. Seguruenik, lantegi-etako ordutegiak oso presente daudelako hemen, bazkaldu atxintxian eta lanera itzultzen gara, nagusiki. Eta iluntzean, espainiarrak ez bezala, lehenago jartzen gara telebistaren aurrean, hori bai, gero ari-nago altxatu eta oheratze-ko.

Baina, gure inguruan kontsumoaren grafikak gameluaren forma hartzen duen arren, beste tokietan ez. Esaterako, Austriar, Suediar, Alemaniar edo Estoniar gauera arte ez dute telebista ikusten (dromedarioak konkorratuak du). Horiak, akaso, egun osoa lanean eman eta arratsalde partean baino ez dute deskantsurik hartzen. Atsedean bila jotzen dute pantaila aurrera. Telebistak nekatzten duenaz!



Edorta Arana

Alkatearekin berbetan

Eguaztenean, 21:05ean

Oñatiko alkatea GOITBn

Angel Iturbe, Oñatiko alkatea, izango da datorren eguazteneko *Alkatearekin berbetan* saioko gonbidatua. GOITBko kazetari eta saioko aurkezle Saioa Ojangu-renekin batera, Oñatiko irratiko eta Kontzejupetik aldirikazetari bana izango da platoan. Ordu betez, Oñatiri eta Debagoienari lotutako gaiez jardungo dute mahai inguruan. Gogoratu, telefono bidez ere esku har daitekeela programan.

Sarrera doan

Eguenean, 21:05ean

RIP taldea 'Sarrera doan'-en

RIP talde mondragoetarrek zenbait kontzertu eskainiko ditu otsaila amaieran. Ez dirudi, tamalez, formalki itzuliko direnik, ez, behintzat, normaltasunarekin joko dutenik aurrerantzean; baina tira, noizbehinka ikusi ahal izateko aukera egongo da gutxienik. Otsailean eman behar dituzten kontzertuak direla-eta, talde mitiko honen inguruko erreportajea eskainiko du *Sarrera doan* programak. RIP taldeaz gain, eta beti bezala, zinemak eta antzerkiek ere izango dute tokia Amagoia Lasagabasterrek aurkezten duen saioan.

Xeleberri

Martitzena, 21:05ean

Xeleberrikoak, nekaezin

Jo eta ke ari dira *Xeleberri*ko erreportari xelebreak azkenaldi honetan. Egunez egun, albiste eta kale inkesta zoroagoak eskaintzen dizkigute Unai Iparragirrek eta Iratxek aurkezten duten saioko neska-mutiek. Bestalde, gogoratu, abian dagoela oraindik ere *Xeleberri-lehiaketa*, eta saria ez dela, ez, makala... Asteburu osoko egonaldia Gatzagako Gaztaiñuzketa mendi-etxeetan! Animatu!



Goiena Telebista

Asteko programazioa / Otsaila: 9-15

EGUBAKOITZA 9	ZAPATUA 10	DOMEKA 11	ASTELEHENA 12	MARTITZENA 13	EGUAZTENA 14	EGUENA 15
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeleberri, Mahai ingurua, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeleberri, Mahai ingurua, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatza			13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete (errepikapena)	13:50 Goienasport (errepikapena)	13:50 Xeleberri (errepikapena)	13:50 Alkatearekin berbetan (errepikapena)
20:00/20:30 Berriak			19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza
20:30 Non-zer			20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak
20:35 Berriak			20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer
21:05 Astebete			20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak
			21:05 Goienasport	21:05 Xeleberri	21:05 Alkatearekin berbetan	21:05 Sarrera doan

Barruko kontuak

'NON-ZER'

Egunero, albistegiaren ondoren, 20:30ean, bailarako agenda ematen du GOITB-k. Denetariko informazioa jaso daiteke agendan: zinema aretoetako emanaldiak, antzerkiak, lehiaketak... Aurrerantzean, hortaz, zerbait antolatuz duzula edo zerbaiten berri eman nahiko zenukeela... Badakizu nora jo, ekar ezazu zure oharra geurera, eta *Non-zer* agendan sartuko dizugu geuk.

ESKIA GOITBn

Eskezaleok baduzue aurrerantzean eski estazioen gaineko informazioa non jaso. Eguenero, *Berriak* albistegiaren barruan eta baita *Sarrera doan* magazinaren barruan ere, eski estazio nagusien egoeraren berri ematen da: zenbat bide dauden zabalik, zenbat eta zein motatako elurra dagoen... Jakin badakigu eskia geroago eta kirol arrakastatsua dela, horrexegatik ekin diogu duela zenbait aste tarte berri honi. Adi egon, hortaz..

Kamera aurrean



"Bake prozesurik ez da piztuko Alderdi Sozialista prozesu horretan murgilduta ez badago"

FERNANDO ARZALLUZ |
Elkarriko Gipuzkoako koordinatzailea



"Gure helburua ETari soberan dagoela jakinaraztea da"

IKER AZPEITIA |
Gesto por la paz-eko batzorde iraukorreko kidea

Atzeskua

MAIDER OSA

Maider Egues/Kazetaria

Zer eskegiko zenuke sorginen laratze-tik?

— Amak prestatuta-ko babarrun pertz handi bat.

— Zein antzekotasun dute ETBk eta sasoi bateko ATBk?

— Ez dute antzekotasun handirik. Nik oso lan ezberdina izan dut batean eta bestean. Antzekotasunei dagokienez, biak telebistak

dira eta kamera bati berba egiten diozu, kamera horren atzean jende kopuru ezberdina izan arren.

— Kazetari ez bazina...

— Dantzari. Zortzi urte nituenetik 16 urtera baleta ikasi nuen, eta gero dantza ikastaroak hartzen segitu dut. Orain urte eta erdi Donostian akademia baten hasi nintzen, eta berriro baletarekin hasi naiz.

— Arrasate ala Donostia?

— Arrasate, nahiz eta astea Donostian pasatzen dudana, lana dela eta. Egubakoitzetan, ordea, etxera joaten naiz, Arrasatera.

— Inoiz entzun edo ikusi duzun misteriorik handiena?

— Otxateko herriarena. Lehenengo programan kasu hori eman genuen.

— Ez duzu inoiz beldurrik sentitu kasu misteriosuak aztertzean?

— Ez. Badaude pertsona batzuk oso sartuta daudenak arlo horretan: kuranderoak, magoak, ... sasi profesional asko dago, eta boterea dute gaizki dagoen pertsona bati sinestarazteko gaizki dagoela, barruan izpiritu edo deaburen bat duelako. Denok eduki dezakegu krisiren bat, eta horrelako pertsona askok jendearen ahultasunaz egiten dute negozioa. Nik ez dut sinesten horrelako kontuetan.

— Eta beldurra zeri diozu?

— Bakardadeari.

— Ikusi duzun lekurik politena?

— Albania. Hango jendearen naturaltasuna miresten dut. Herria ere ez dago batere esplotatuta, eta horrek asko erakarri ninduen. Albariako kostaldea gustatu zitzaidan gehien.

— Zure oroitzapenik gogoangarriena?

— Ahizpa jaio zen eguna. Sei urte nituen, baina oso ondo gogoratzen dut.

— Zelan gogoratzen dituzu Leioako ikasle urteak?

— Zoritxarrez, ez nuen aukera handirik izan urte horiek bizi izateko. Bigarren urtean lanean hasi nintzen ATBn, eta azterketak egiteko bakarrik azaltzen nintzen unibertsitatean. Lehenengo urtea moja egoitza baten eman nuen.

— Zure lanetik zer duzu gustuko?

— Lantaldea. Lanari gehiago begiratuta, ostera, eskuak libre ditut gura dudana nahi dudana moduan egiteko.

“Kazetari ez banintz, dantzari izatea gustatuko litzaidake”

“Sorginen laratza-tik lantaldea dut gustuko”

“Albania da inoiz ikusi dudana lekurik politena”

► Arrasatearra / 26 urte / ‘Sorginen laratza’n kazetari

AIPAGARRI



JOSEBA LARRINAGA
Aretxabaleta
Lasterkaria

Saharako iheslariak antolatutako lasterketa baten esku hartuko du 32 urteko atxalbarrak. Otsailaren 27an joango da Aljeriara. Joseba bosgarren geratu zen Sidneyko Joko Paraolimpiarretan. Horrez gain, hainbat maratoni lasterketatan ibilia da eta Atlantako jokoetan ere izan zen.



MIREIA GABILONDO
Bergara / Aktorea

Tantaka antzerki taldeak Donostiako Printzipal Antzokian atzo estreinatu zuen *Errudun jaiok* antzez-lanean esku hartzen duten 11 aktoreetako bat da. Lan berri-tzaile honetaz gain, beste antzerki eta telebista lan batzuk ere eginak ditu 36 urteko bergararrak.

GUNEAK:



HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (3-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)



LEHEN HEZKUNTZA

(6-12 urte)

- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

(12-16 urte)

- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen

BULEGO INFORMATIBOAK

Arrasate

Ferixalekua
15:00-19:00
943 77 20 25

Aretxabaleta

Arizmendi
17:00-19:00
943 79 31 32

Eskoriatza

Jose Arana-Almen
14:00-18:00
943 71 44 86

Matrikula zabalik
Otsailaren
5etik -16ra



Arizmendi
ikastola